Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**GIZA, GIZARTE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

*Lehen Hezkuntzako Irakasletzako Gradua*

*Gradu Bukaerako Lana*

# *Haur eta gazte literatura: emozioak identifikatzeko eta kudeatzeko tresna gisa*

**Ikaslea: Irantzu Beloki Arcelus**

Tutorea: Juan Karlos Lopez-Mugartza Iriarte

Saila: Giza eta Hezkuntza Zientzien saila

**Arloa: Euskal Filologia eta Didaktika** **Ekaina, 2023**

## Resumen

Este Trabajo de Fin de Grado se centra en la Educación Primaria y trata de aprender a identificar y gestionar las emociones a través de la literatura infantil y juvenil. Entre los diferentes recursos dentro de la literatura se utilizan los cuentos como base, en concreto, los que trabajan las emociones.

A través de este trabajo, se propone aprovechar la utilidad de la literatura para trabajar los diferentes aspectos e inteligencias del alumnado. Asimismo, se propone trabajar a través de los cuentos otros aspectos de la educación, como las emociones y con ello la educación emocional, ya que las emociones son parte importante de la vida, por lo que es necesario una buena educación emocional desde la infancia. Ayudándoles, así, a identificar, reconocer, comprender y gestionar sus propias emociones, y, a la vez, las de los demás.

En resumen, para garantizar el desarrollo integral del alumnado, se plantean algunas actividades en las que el alumnado participará en el proceso de elaboración de los mismos.

*Palabras clave*: Literatura infantil y juvenil, cuentos, emociones, identificación de las emociones y educación emocional.

## Abstract

This Final Degree Project focuses on Primary Education and tries to learn to identify and manage emotions through children´s and youth literature. Among the different resources within literature, stories are used as a basis, specifically, those that work emotions.

Through this work, it is proposed to take advantage of the usefulness of literature to work the different aspects and intelligences of students. It is also proposed to work through stories other aspects of education like emotions, and with it, their emotional education. Because, emotions are an important part of life, so it is necessary a good emotional education for childhood. Helping them to identify, recognize, understand and manage their own emotions, and at the same time, the emotions of others.

In summary, in order to guarantee the integral development of the students, some activities are proposed in which the students will participate in the process.

*Keywords*: Children and youth literature, stories, emotions, identification of emotions and emotional education.

## Laburpena

Gradu Amaierako Lana, haur eta gazte literaturaren bidez emozioak identifikatzea eta kudeatzearen ingurukoa da. Literaturaren barruan dauden baliabide ezberdinen artean, ipuinak erabili dira oinarri bezala, zehazki emozioak lantzen dituzten horiek. Lana, Lehen Hezkuntzan oinarritzen da.

Lan honen bitartez proposatzen da, literaturaren erabilgarritasunaz baliatzea ikasleen bizitzako alderdi eta adimen ezberdinak lantzeko. Era berean, ipuinen bidez, hezkuntzako beste alderdi batzuk lantzea proposatzen da, hau da, emozioak, eta horiekin batera, adimen emozionala. Aurrekoaren harira, emozioak bizitzako atal garrantzitsuak dira, horregatik, beharrezkoa da txikitatik heziketa emozional ona jasotzea. Horrela, etorkizunean bakoitzak bere emozioak identifikatzeko, ezagutzeko, ulertzeko eta kudeatzeko gai izango da, baita ere, besteengan identifikatzeko.

Laburbilduz, ikasleen garapen integrala bermatzeko, proposamen honetan, jarduera batzuk planteatzen dira, non, ikasleak haien ikasketa-prozesuan parte hartuko duten.

*Hitz gakoak*: Haur eta gazte literatura, ipuinak, emozioak, emozioen identifikazioa eta heziketa emozionala.

# AURKIBIDEA

**SARRERA ..... 5**

**1. MARKO TEORIKOA ..... 6**

**1.1. LITERATURA ..... 6**
**1.2. HAUR ETA GAZTE LITERATURA ..... 7**
*1.2.1. HAUR ETA GAZTE LITERATURAREN EZAUGARRIAK ..... 8*
*1.2.2. HAUR ETA GAZTE LITERATURAREN BILAKAERA/ HISTORIA ..... 10*
*1.2.3. HAUR ETA GAZTE LITERATURAREN ONURAK ..... 11*
*1.2.4. HAUR ETA GAZTE LITERATURA EGUNGO CURRICULUMEAN, LOMLOE ..... 13*
*1.2.5. HAUR LIBURUAK EDO IPUINAK ..... 13*
**1.3. EMOZIOAK ..... 14**
*1.3.1. EMOZIO MOTAK ETA BERE SAILKAPENA ..... 16*
*1.3.2. EMOZIOAK ETA CURRICULUMA, LOMLOE ..... 18*
*1.3.3. EMOZIOEN LANKETAREN GARRANTZIA ..... 18*
*1.3.4. LANDUKO DIREN EMOZIOAK ..... 20*
*1.3.5. HEZKUNTZA EMOZIONALA ..... 21*
*1.3.6. ADIMEN EMOZIONALA ..... 21*
*1.3.7. ADIMEN EMOZIONALA AZTERTZEKO INKESTA: EMOZIOAK EZAGUTZEN DITUZU? ..... 22*

**2. MARKO PRAKTIKOA ..... 29**

**2.1. SARRERA ..... 29**
**2.2. TESTUINGURUA ..... 29**
**2.3. H*ELBURUAK* ..... 30**
**2.4. OINARRIZKO JAKINTZAK ..... 31**
**2.5. FUNTSEZKO KONPETENTZIAK ..... 33**
**2.6. METODOLOGIA ..... 36**
**2.7. ANIZTASUNAREN ZAINKETA ..... 37**
**2.8. EBALUAZIOA ..... 37**
**2.9. JARDUERAK ..... 41**

**ONDORIOAK ETA GAI IREKIAK ..... 48**

**ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK ..... 51**

**ERANSKINAK ..... 53**

# SARRERA

Gaur egun geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari den gaia da osasun mentala bizitzako testuinguru eta etapa ezberdin guztietan. Horregatik Gradu Bukaerako Lan honen aztergaia emozioen lanketa haur eta gazte literaturaren bitartez izango da, zehazki ipuinen bitartez. Lan honen bitartez lortu nahi dena da, ikasleak txikitatik emozioak identifikatzen ikastea, bakoitzari bere izena jartzea eta hauen ezaugarriak ezagutzea, horrela kudeatzen ikasteko. Hori guztia haur liburuen bitartez, azkenean, haur eta gazte literaturak erabilera ezberdin asko eskaintzen ditu eta bere ahalmenaz probestu behar da.

Irakasleentzat haur eta gazte literatura tresna oso baliagarria eta garrantzitsua da, haurren heziketan laguntzen duelako. Azkenean txikitatik literaturarekin harremanetan daude haurrak, hala nola, sehaska-kantekin. Ikertzaile eta aditu askok egindako ikerketen arabera, txikitatik haur literaturarekin harremanetan egon diren haurrek hizkuntza aberatsagoa izan dute. Horregatik oso garrantzitsua da txikitatik harremanetan jartzea haurrak haur liburuekin.

Ildo beretik, haur eta gazte literaturaren onuren artean azpimarra daiteke hizkuntzaren garapena ahalbidetzen duela.

Gradu Bukaerako Lan hau indarrean dagoen Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako curriculumean oinarritzen da, hau da, LOMLOE-n. Proiektua Euskara eta Literatura (D eredua) ikasgaian burutzeko diseinatu da, Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko bigarren mailako ikasleekin.

Jarraian aurkezten den Marko Teorikoa bi ataletan banaturik dago, lehenengoan haur eta gazte literatura izango da oinarria eta aldiz bigarrenean, emozioak.

# 1. MARKO TEORIKOA

## 1.1. LITERATURA

Haur eta gazte literatura definitzerako orduan egile askok zailtasunak eta desadostasunak izan dituzte, kontzeptua definitzeak eztabaida eta gatazka ugari sortu baititu. Egile batzuk haur eta gazte literaturaren alde daude, hau da, izaera propioa duen literatura dela defendatzen dutenak dira. Bestalde, badira beste batzuk izaera ukatzen diotenak eta literatura berezi edo moldatu bat dela defendatzen dutenak.

Baina honekin guztiarekin hasi aurretik literatura kontzeptua zer den jakin behar da. Egile askok kontzeptua definitzen saiatu dira, hala nola, Etxaniz (1997), Colomer (2010), Cervera (1992), etab. Ez dago literaturaren definizio bakar bat, asko baizik eta denboraren poderioz aldatzen joan dira. *Literatura* hitza latinetik datorren hitza da eta *litterae* esan nahi du. Espainiako Errege Akademiarentzat (2023) literatura hitzezko adierazpen artistikoa da. Bestalde, Etxanizen (1997) arabera ahozko adierazpenaren bitartez sortutako artea da literatura. Ildo beretik, Porrasentzat (2013) literatura hitzez nahiz ahoz sortutako artea da eta modu ezberdinetan aurki daiteke: abesti moduan, liburu moduan, olerki moduan, antzerki moduan eta abar.

Beraz, definizio ezberdinetan oinarrituz, literatura hitzez nahiz ahoz sortzen den adierazpen artistikoa dela esan daiteke. Ramosek (2022) dioen bezala, literatura hitzaren definizio asko daude, baina gehienetan agertzen den amankomuneko ezaugarria honako hau da: hitza oinarritzat duen adierazpen artistikoa da, ahoz nahiz idatziz izan daitekeen hori. Horrez gain, hitzaren erabilpenaren bitartez irakurleak istorio, emozio edota bizipen ezberdinak ezagutzeko aukera du. Horrez gain, Ondorioz, literatura obrek jakintzak, emozioak, pentsamenduak, bizipenak eta abar transmititzeko baliabide ezin hobea direla esan daiteke. Beraz, literatura adierazteko modu bat da eta irakurleari bere ezagutzak zabaltzeko aukera eskaintzen dion baliabidea ere bai.

Duela ehun urteko literatura lanak alderatuz gero, gaurdaino iritsi zaizkigun literatur lanek ibilbide luzea izan dute, hau da, eraldaketa ugari izan dituzte urteak igaro ahala egun ezagutzen diren bezala izateko. Kasaresek (2021-22) dioen bezala, lehen, herrietako plazetan ahoz aho transmititzen ziren istorioak, ipuinak, olerkiak, asmakizunak, etab. ziren, beraz, ahozkoak ziren. Obra horiek buruan gordetzeko errazak, errepikapen askorekin, errimekin eta antzeko baliabideez osaturik zeuden, horrela gizartearentzat memoriaz ikasteko errazagoak ziren eta gero belaunaldiz belaunaldi transmititu ahal zituzten. Horrela bizi garen kulturaren eta munduaren berri izan dugu, eta egun ditugun zalantza askoren erantzuna eskaintzen digu. Beraz, literatura lanak betidanik egon dira eta gainera, kultura eta herrialde guztietan daude. Kultura eta herrialde bakoitzak bereak propioak diren istorioak, kondairak eta abar ditu, hau da, Txinan, adibidez, bere kulturarekin erlazionaturik dauden literatura lanak dituzte eta, aldiz, Euskal Herrian bere kulturarekin erlazionaturik dauden istorioak. Baina badira ere

unibertsalak direnak. Hau da, herrialde guztietan amankomunak direnak, hala nola*, Txanogorritxoren* ipuina (Perrault, 1697). Beraz esan daiteke literatura gizartearen ondare garrantzitsuenetarikoa da.

## 1.2. HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Haur eta gazte literatura azken urteetan eztabaida ugari sortu dituen gaia izan da. Azkenean mugak ezartzea helduen literatura eta haur eta gazteen literaturaren artean zaila baita, horretarako lehendabizi argi izan behar da zer den literatura eta bere ezaugarriak. Hurrengo urratsa izango litzateke haur eta gazte literatura zer den jakitea eta honen ezaugarri bereziak. Gaiarekin sartu aurretik, aipatu beharra dago haur eta gazte literatura kontzeptu nahiko berria dela eta egile bakoitzak bere iritzia jarraituz definizioa sortu dutela.

Aurrekoaren harira, idazle eta aditu askok kontzeptua definitzea beharrezkoa ikusten zuten, eta berriz ere, definizioa egiterakoan eztabaida ugari sortu dira, bakoitzak bere iritzia defendatzen duelako. Etxanizek (1996) dioen bezala, idazle edo aditu batzuek haur eta gazte literaturari izaera ukatzen diote, aldiz badira beste batzuk izaera propioa duela defendatzen dutenak edota hartzailearen ezaugarrietara jotzen dutenak, hau da, haurrak direla literatura mota hau definitzen dutenak. Beraz, eztabaida sortzen duen alderdietako bat haur eta gazte literaturaren izaera da, hau da, izaera propioa duen literatura den edo literaturaren azpimota bat den. Ondorioz, ikus daiteke iritzi ezberdinak daudela kontzeptuaren definizioa egiterakoan.

Egile askok kontzeptua definitu dute, hauen artean Cerverak (1984), Bortolussik (1985) edota Etxanizek (1997). Azken honek bere *Haur eta Gazte Literatura* lanean idazle ezberdinek emandako kontzeptuaren definizioa bildu ditu. Beraz, nola definitu dute aurreko egileek haur eta gazte literatura kontzeptua? Cerveraren (1984) iritziz, haur eta gazte literatura haurren interesak kontuan izanda eskaintzen zaizkien lanak dira, non hitza oinarritzat duten. Bestalde, Bortolussiren (1985) arabera, haurrei zuzendutako lan artistikoak dira. Bestalde, Etxanizek (1997) *Haur eta Gazte Literatura* lanean idazle ezberdin askok emandako kontzeptuaren definizio ezberdinak bildu ditu, hala nola Zubizarretak eta Juaristik emandako definizioak agertzen dira. Zubizarretaren (ap. Etxaniz, 1997) arabera, hasieran uste zuen haur eta gazte literatura egiterakoan estiloa erraztu behar zela, baina gero ohartu zen ez zela horrela. Azkenean, bi literaturatan antzeko baliabide linguistikoak errepikatzen baitira. Bestalde, Juaristiren (ap. Etxaniz, 1997) iritziz, bi literaturak guztiz ezberdinak direla defendatzen du, hau da, bi mundu ezberdin direlako.

Ondorioz, ikus daiteke guztiak bat datozela haur eta gazte literatura sormena dela eta hitza pentsamenduak, emozioak, iritziak, nahiak, sentimenduak, informazioa eta abar adierazteko eta transmititzeko tresna oso baliagarria dela. Haur eta gazte literaturaren inguruan definizio asko aurki daitezke, eta guztiak bat datoz esatean literatura mota hau hartzaile zehatz bati bideratuta dagoela: haurrari. Etxanizek (1997, 15. or.) dioen bezala: “Haur eta gazte literatura sortzerakoan hartzailea izan

behar dugu kontuan, baina ere bere nolakotasuna. Haurrak garatze prozesuan murgildurik dauden gizakiak direlako eta etengabe aldatzen daudelako." Horregatik, literatura lanak haurraren interesetan oinarritutako sormen ludikoak izan daitezke, haurren gaitasunei egokitutakoak eta etorkizunean baliagarriak izan daitezkeenak. Horrela, haurraren garapen prozesuari lagungarri izango zaien baliabideak izango dituzte, lan horiek ipuinak, asmakizunak, elezaharrak eta abar izan arren, haien atzean irakaspen bat dago edota haien etorkizunean baliagarri izango zaien egoera baten erantzuna. Azkenen finean, haurrei zuzendutako lanetan pertsonaia batzuk agertzen dira eta irakurle gazteek pertsonaia horiekin identifikatzeko joera daukate. Idazleek lan bat idazterakoan, ongi pentsatzen dute zein adinetako hartzaileei bideratua dagoen lana, horregatik pertsonaiek bizitzen dituzten gertaerak normalean haurrek haien egunerokoan bizitzen dituztenekin zerikusia daukate. Aurrerago haur eta gazte literaturaren baliagarritasunaz hitz egingo da, baina argi ikus daiteke tresna ezin hobea dela irakasleentzat.

### *1.2.1. HAUR ETA GAZTE LITERATURAREN EZAUGARRIAK*

Haur eta gazte literatura zer den jakin eta gero honen ezaugarriez hitz egingo da. Literatura mota honek, izenak dioen bezala, haurrendako eta gazteendako espresuki sortuak izan diren obrak dira, nahiz eta edonork irakurri ahal dituen. Literatura mota honen ezaugarriak bilatuz gero, ikus daiteke egile, idazle edo gaian adituak diren pertsona askok ikerketak egin dituztela. Nahiz eta bakoitzak bere iritzia izan, gehienek bat datoz amankomuneko ezaugarri batzuekin. Ikerketak egin dituzten egileen artean, Colomer (2010) eta Kasares (2021-22) aipatuko dira.

Colomerren (2010) iritziz haur eta gazte literaturaren ezaugarrien artean, adin zehatz bateko hartzaileei bideraturiko lanak dira, ondorioz hartzailearen ezaugarriak kontuan izan behar dituzten lanak izan behar dira. Hau da, adina, adineko interesak eta motibazioak, haurren nolakotasuna eta bizitokia edo kultura eta hizkuntza maila eta horren ondorioz, idazleek gaia, pertsonaiak, lekua, denbora eta gertaerak aukeratzen dituzte. Haur eta gazte literatura mundua osatzen duten obrek kontuan izan behar dituzten ezaugarriak honako hauek dira: lehendabizi eta garrantzitsuenetarikoa, haurren interesak kontuan izan behar dira eskaintzen zaizkien lanetan. Hau da, interesatzen eta motibatzen zaien hori eman behar zaie, bestela aspergarriak suertatu ahal zaizkie eta irakurtzeari uko egin ahal diete. Bigarrenik, literatura mota honetan adierazteko modua era askotarikoa da, hau da, bere erabilpena oso zabala da: jokoekin, musikarekin, narratibetan, etab. izan daiteke. Ondorioz, haurrek aldi berean, zentzumen ezberdinak erabili behar dituzte, hau da, adibidez abestiekin entzumena eta ikusmena erabiltzen dute, ondorioz gaitasun ezberdinak lantzeko eta garatzeko aukera ematen dute. Adibidez, hizkuntza gaitasuna garatzekoa. Hirugarrenik, haur literaturak haurrari gozamena, plazerra eta irakurtzeko gogoa eragiten diona da. Laugarrenik, haur literaturak haurra etorkizunerako edota bizitzarako prestatzekoa ideiarekin sortutako lanak izan behar ditu, hau da, haurraren esperientzia eta

ezagutzak zabaltzen dutenak. Literatura mota honek haurrei etorkizunerako edota haien egunerokoan biziko dituzten gertaeren hurbilpen bat ematen die, eta aldi berean zalantza eta gauza askoren erantzuna hemen bila dezakete.

Bestalde, Kasaresen (2021-22) arabera hauek dira ipuinen ezaugarriak: hasteko mintzamoldea, hau da, egilearen asmoaren eta haurraren gaitasunen arabera hizkuntza arrunta edo artistikoa erabiltzen da. Helduen literatura lanekin alderatuz gero, haur literaturan erabiltzen den hizkuntzak ezaugarri ezberdinak ditu, hala nola, maila baxuagoa, esaldiak sinpleagoak eta laburrak izatea, ondorioz testu gutxiago agertzen da eta argazki edo marrazki gehiago. Bestalde semantikoki, hizkuntza eta hiztegia aberasteko helburuarekin lexiko berria erabiltzen da, eta eskaintzen zaizkien ipuinen hizkuntza maila irakurlearen maila baino pixka bat altuagoko lanak dira, baino beti ulergarritasuna bermatuz. Honen harira, hizkuntza maila haurren gaitasunen araberakoa izan behar da. Pragmatikoki erabiltzen diren esaldiak, mezu argikoak, zuzenak eta motzak izan ohi dira. Eta gramatikalki erabiltzen diren esaldiak, ere zuzenak dira. Beste ezaugarrietako bat hauen erakargarritasuna da, hau da, haurrengan interesa eta irakurtzeko gogoa pizten dituzten baliabide asko erabiltzen dituzte. Hala nola, ilustrazioak eta marrazkiak. Haurrendako ipuinak irudiz beterik dauden obrak dira eta irakurketa errazteko balio dute, hau da, testuko informazioa osatzeko edo ulertzen laguntzeko. Irakurketa errazteaz gain, irudiek irakurleekin konexioak sortzen dituzte, eta hauek azaletik hasten dira. Azaletik istorioaren inguruko pistak ematen dizkiolako irakurleari, eta horrek, interesa eta irakurtzen jarraitzeko gogoa pizten dio. Haur literaturaren beste ezaugarrietako bat, letren tamaina ezberdinarekin jolasten duten lanak direla da, aurrekoa bezala erakargarritasuna eta istorioko atalik garrantzitsuenak azpimarratzeko, eta ulertzeko asmoarekin, hala nola, izenburuak letra tamaina handiagoarekin agertzen dira. Era berean, ipuinetan agertzen diren pertsonaiak haurrentzako ezagunak izan ohi dira, errealak baita imajinagarriak, nahiz eta istorio askotan fantasiazko pertsonaiak agertu. Irakurle gazteek istorioetako pertsonaiekin erlazioak eta konexioak egiten dituzte, horiei esker ipuinean sartzeko aukera izaten dute, eta beraz, haiekin identifikatzen dira.

Euskal kulturan ospetsua den haur eta gazte literaturako liburua, *Txomin ilea mozten* (Slegers, 2003) liburu hori *Txominen* bildumako liburuetako bat da, eta ume baten egunerokoa kontatzen du. Aurretik aipatu diren ezaugarriak betetzen ditu, hau da, letra tamaina ezberdinak erabiltzen ditu, liburua marrazkiz beterik dago eta irakurleak kontakizuneko pertsonaiarekin identifikatzen dira, azkenean, haiek bezalako ume baten egunerokoa kontatzen duten liburuak baitira.

Laburbilduz, aipatzen diren bi egileek bat datoz haur eta gazte literaturaren ezaugarri gehienetan. Haur ipuinak haurrentzat erakargarriak izango diren elementuz osaturik dauden lanak direla, non elementu hauek istorioan murgiltzea, honen zentzua eta ulermena erraztea eta identifikaziorako baliagarriak zaizkien. Era berean, ipuin hauek haurraren nolakotasuna kontuan

hartzen duten lanak dira, horregatik, hizkuntza maila eta erregistro ezberdinak erabiltzen dituzte, marrazki eta irudi gehiago, istorio sinpleagoak eta ohiko pertsonaiak agertzen dira.

### *1.2.2. HAUR ETA GAZTE LITERATURAREN BILAKAERA/ HISTORIA*

Haur eta gazte literaturaren sorrera ulertzeko, lehendabizi, haurraren kontzeptuari buruzko informazioa jakin behar da. Haurra Etxanizen (1997) arabera, garatze prozesuan murgilduta dagoen pertsona da, hau da, ezagutzak, nortasuna, gaitasunak eta horrelakoak barneratzen ari dena. Haurra izateari utziko dio helduaroan sartzen denean.

Era berean, historian zehar haurraren kontzeptua aldatzen joan da eta aurrekoak bezala, kontzeptu eztabaidagarria izan da. Ildo beretik, egile ezberdin askok haurraren eta haur eta gazte literaturaren inguruan ikerlan asko egin dituzte, hala nola, Etxanizek (1997) eta Rosseauk (ap. Etxaniz 1997).

Etxanizek (1997) zehaztu duen bezala, XVIII. mendearen aurretik, haurrak nortasun gabeko pertsonatzat hartuak izan ziren, hau da, eskubiderik gabekoak eta helduen menpe zeudenak. Horregatik, XVIII. mendean haurrak pertsona helduak eskala txikian kontsideratzen ziren. Horren arrazoia da, gaur egun arte, gizarteak haurrak adinaren arabera bereizten dituela. Ondorioz, XVIII. mendearen aurretik, haurrak ez ziren gizartearen kide bezala kontsideratzen, eta beraz, ez zuten ez eskubiderik ez aukerarik. Ikus daitekeen bezala, haurraren nortasuna eta eskubideak oso berandu onartu ziren. Uliveriren (1986) arabera, haurra duela gutxi arte nortasunik gabeko pertsona zen, hau da, ikusezina.

Ikus daitekeen bezala, haurra nortasun gabeko pertsona bezala kontsideratua izan zen urte askotan, baina baziren ere haren alde zeudenak, hau da, haren nortasuna eta eskubideak defendatzen zituztenak eta Rosseau izan zen horietako bat. Rousseauk (ap. Etxaniz, 1997) defendatzen zuen haurrak nortasun propioa zuela, hau da, haurra ez zela gizon txikia eta haurtzaroa gizakiaren beste edozein bizitzako etapa bat zela non pentsatu, sentitu eta adierazteko modu berezia zuena. Horretarako, haurrarekiko errespetua nabarmendu zuen, jarduera ezberdinen bitartez non hauek haurraren balio propioa garatzen zuten, haren aukerak eta erabakiak bultzatuz.

Haurraren nortasuna ez onartzeak eragin zuzen izan zuen haur eta gazte literaturan, azkenean haurraren izaera errespetatzen ez bada zergatik sortu behar da haiendako literatura? Ondorioz, haur eta gazte literatura kontzeptu nahiko berria da.

Haur eta gazte literaturaren bilakaerarekin hasteko, Kasaresen (2021-22) arabera, lehen literatura bezala ahoz aho eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen ziren istorioak, ipuinak eta abestiak ziren. Beraz, ahozko lanak ziren eta herrietako plazetan kontatzen ziren. Gero, eskoletan erabiltzen hasi ziren, baina haurrendako literatura lan horiek kutsu didaktikokoak ziren, garaiko eskoletako baliabide didaktikoak baitziren eta edukiak transmititzeko eta ikasteko erabiltzen ziren soilik. Ondoren egoera

ikusita hezitzaile, irakasle eta idazle askok haurraren nortasuna eta haur eta gazte literatura aldarrikatzen hasi ziren. Eta horrekin batera, haur liburuak aldarrikatuz. Non, haur liburu horiek haurraren ezaugarriak, interesak eta beharrak errespetatzen zituzten eta gozamena helburutzat zeukaten horiek ziren. Aldarrikapenen ondorioz, eskola liburuen eta haur liburuen bereizketa suposatu zuen eta horrekin batera haur eta gazte literaturaren sorrera emanez.

Haur eta gazte literaturaren sorrerarekin batera, Cerverak (1992) horren inguruko ikerketak egin zituen eta bere aburuz, haur eta gazte literatura sortzeko hiru modu aurkitu zituen: Lehendabizikoa, "*irabazitako literatura*" deritzona eta literatura mota hau hasieran haurrendako sortuak izan ez ziren lanak dira, hau da, helduentzat sortuak izan zirenak. Baina denboraren poderioz moldatuak izan dira eta haurrentzakoak bilakatu direnak sartzen dira. Esparru honen barruan sartuko litzateke adibidez ipuin tradizionalak, haur folklorea, jokoetako abestiak, etab. Bigarrenik, "*helburu didaktikoak*" edota beste hitzekin esanda "*instrumentalizatutako literatura*" lanak sartzen dira. Lan hauetan, haurrendako literatura lanak sartuko lirateke. Eta multzo honen barruan aurkitu daitezkeen lanak bilduma baten modukoak dira, non protagonista bat agertzen den espazio, denbora eta ekintza ezberdinetatik igarotzen. Adibidez, aurretik aipatu den *Txomin ilea mozten* (Slegers,2003) liburua, liburu hori bilduma batekoa da eta protagonista bat agertzen da ume baten eguneroko ekintza ezberdinak egiten. Eta amaitzeko, hirugarren mota "*haurrendako sortutako literatura*" egongo litzateke. Non, haurren ezaugarriak kontuan izaten dituzten lanak diren, hau da, haurren interesak, behar psikologikoak, afektiboak eta sozio emozionalak sortu aurretik kontuan izan dituzten lanak dira.

### *1.2.3. HAUR ETA GAZTE LITERATURAREN ONURAK*

Haur eta gazte literaturak irakurle gazteengan eragin handia du eta aldi berean, eragiten dituen onurak askotarikoak dira. Morónen (2010) iritziz, haurrengan eragin positiboak sortzeko, txikitatik, hau da, jaiotzetik haurrari literatura lan ezberdinekin harremanetan jarri behar zaio. Umeek haur literaturarekin duten lehen kontaktua guraso eta familien bitartez izaten da, eta zehazki: sehaska-kantekin, abestiekin, aho-korapiloekin, ipuinekin eta antzeko lanekin Izaten da. Hauek, haur literaturaren erarik sinpleenak direlako, hau da, errepikapenez beteriko lanak izaten dira, errima askorekin eta ulergarriak direnak. Ondoren, hazten doazen heinean haurtzaindegietan eta eskoletan izaten dute haur literaturarekin kontaktua, ipuinen eta ikus-entzunezko elementuen bitartez.

Beraz, haurtzaroan umearen garapeneko etapa oso garrantzitsua da, zeinetan familiak eta eskolak, hau da, umearen ingurune hurbilak paper garrantzitsua daukaten. Ondorioz, ondo aukeratu behar dituzte haurrei eskainiko dizkieten literatura lanak, kontuan izanda haien ezaugarriak, adina, egokiak izatea, kalitatezkoak eta haien interesak eta beharrak asetzen dituzten horiek izatea. Horrela, benetan esperientzia aberasgarriak sortuko dituzte haurrengan eta literatura mota honek eragiten dien onura guztiez baliatuko dira.

Haur eta gazte literaturaren onurak askotarikoak dira eta jarraian aipatuko dira, horretarako Colomerren (2010), Morónen (2010) eta Urtubia eta Lasarteren (2014) ikerketak oinarritzat hartuko dira.

Hasteko, aipatu beharra dago haur eta gazte literaturak haurrengan dituen onurak amaigabeak direla. Lehendabizikoa, literatura mota honen irakurketaren bitartez hizkuntza menperatzen hasten direla haurrak eta hizkuntza menperatzearekin batera hausnarketarako gaitasuna eta pentsamendu kritikoa garatzen dute. Ildo beretik, hau da, hizkuntza menperatzearekin batera, pentsamenduak, iritziak eta emozioak adierazteko gaitasuna hobetzen dute eta haien barne mundua adierazteko modu ezberdinak ikasten dituzte, eta aldi berean, kanpokoa hobeto izendatzen ere. Onuretako beste bat, haurren hiztegiaren aberasketa da, azkenean geroz eta literatura lan gehiago kontsumitu, orduan eta hitz berri gehiago jakingo dituzte. Onurekin jarraituz, gaitasun ezberdinak garatzea laguntzen die, adibidez: ahozkoa, idatzizkoa, memoria, arreta, etab. Azkenean, irakaslearen helburuen arabera, modu batez edo bestez lantzen dute eta ondorioz, ikasleak garatu beharreko gaitasunak lantzen dira. Horrez gain, haurren sormena eta irudimena estimulatzeko aukera ematen du.

Era berean, haur eta gazte literaturak haurren beharrak asetzen ditu eta hauen esperientzia eta ezagutzak zabaltzeko aukera ematen die, azkenean informazio bat transmititzen duelako. Ildo beretik, informazioa transmititzen badu haurren herrialdearen, kulturaren eta jakintzen berri dute, ondorioz haien sustraiekin eta arbasoekin identifikatzen dira eta horrela komunitateko edo gizarteko kide sentimendua garatzen dute. Aurrekoaren harira, haurren integrazioa ahalbidetzen du. Era berean, izango dituzten kezka eta zalantza askoren erantzunak ematen die, baita etorkizunean izango dituzten erronken erantzunak eskaintzean dizkie. Beraz esan daiteke, bizitzari zentzua ematen laguntzen diela.

Bestalde, Morónen (2010) iritziz, haur eta gazte literaturak duen onuretako beste bat honek eskaintzen duen erabilera ezberdin guztiak dira, hau da, modu ezberdinetan landu daitekeela, hala nola: jolas moduan, ikasteko, antzerkiak egiteko edota irakurketaren bitartez. Ondorioz, ikasleak inoiz ez dira aspertzen. Eta era berean, irakasleentzat heziketarako baliabide ezin hobea dira, haurrek gustuko dituzten lanak direlako eta aukera ezberdin asko eskaintzean dielako eduki ezberdinak lantzeko. Hezteaz gain, gozamena, plazerra eta ezagutzak eraikitzeko balio die haurrei. Puertak, Gutiérrezek eta Ballek (2006) dioten bezala, literaturaren onuren artean esperientzia oso aberasgarriak eskaintzen diela haurrei eta hori beharrezkoa da haien garapen integralerako**, e**ta, norberaren kontzeptua eraikitzeko baliabideak ematen dizkio umeari.

Bestalde, Morónen (2010) arabera, haur eta gazte literaturak dituen onuren artean eta emozioekin erlazionaturik dagoena honako hau da: sentitzen dituzten emozio, sentimendu edota pentsamenduak hitzen bitartez adierazteko behar dituzten ezagutzak eskaintzen dizkiela. Zehatzago esanda, emozioen inguruko kontzientzia lexikoa eta hiztegia garatzeko behar dituzten ezagutzak ematen dizkie. Horrela, sentitzen dituzten emozioei izenak jartzen ikasten dute eta hauek ezagutzen,

ulertzen, kudeatzen eta besteengan identifikatzen ikasten dute. Beraz, beste onuretako bat emozioen alfabetatzeari laguntzen diola da edo beste era batean esanda, heziketa emozionalerako ezagutzak transmititzen eta irakasten dizkiete haurrei. Emozioengan eragiten dituzten onurekin jarraituz, haurrek sentimendu eta emozio ezberdinak lantzen, ulertzen, ezagutzen, eta identifikatzen ikasten dute. Haurrendako literatura lanetan sentimendu eta emozio asko agertzen dira, eta hauei esker haien emozioak eta besteenak ezagutzeko estrategiak ematen dizkiete.

Laburbilduz, haur eta gazte literaturak haurrengan eragin oso positiboak ditu alderdi ezberdinetan, eta horregatik beharrezkoa da hau lantzea.

### *1.2.4. HAUR ETA GAZTE LITERATURA EGUNGO CURRICULUMEAN, LOMLOE*

Hezkuntza legediari erreparatzen bazaio, hau da, Nafarroako Foru komunitatean indarrean dagoen 2022ko LOMLOE-ri, ikus daiteke Euskara eta Literatura (D eredua) ikasgai dagoela. Ikasgai honen barruan, literatura eta haur eta gazte literatura lantzen dira Lehen Hezkuntzako ikasleekin.

LOMLOE-ko (2022) Euskara eta Literatura (D eredua) curriculumak abiapuntutzat hartzen du ikasleek hezkuntza ibilbide desberdinak dituztela, ondorioz hor agertzen den bezala, ikasle bakoitzaren erritmoa eta gaitasunak kontuan izan behar dira. Horrela, ikaskuntzaren zentzua eraikitzeko, testuen hausnarketarako, ulermenerako edo produkzioa lortzeko bideratu behar da ikasleen heziketa. Horretarako, konpetentzia espezifiko batzuk daude ikasgaiaren barruan, eta ildo beretik, Euskara eta Literatura ikaskuntza prozesu gisa ulertu behar da, hau da, eraikitzen ari diren ezagutzak bezala.

Horrez gain, literaturari dagokionez, LOMLOE-k (2022, 81. or.) irakurmena, sormenaren garapena, ulermena, produkzioa eta kontzientzia kritikoaren garapena ezartzen ditu helburu bezala. Aurreko helburuak lortzeko, haur eta gazte literaturaren baliagarritasunaz baliatzea aholkatzen da. Era berean, haur eta gazte literatura oinarrizko jakintzatzat hartzen du, horregatik curriculumeko (2022, 90. or.) *C. Literatura hezkuntzan* agertzen den bezala: ikasleak haur literaturako lan errazak, laguntzarekin behar izanez gero, irakurtzea, interpretatzea, sortzea eta ikastetxeko liburutegia erabiltzea planteatzen da.

### *1.2.5. HA*UR *LIBURUAK EDO IPUINAK*

Haur eta gazte literaturaren barruko generoetako bat narratiba da eta honen barruan ipuinak edo liburuak daude. Ipuinak irakasleentzat baliabide bikainak dira, edozein gai lantzeko aukera eskaintzen baitute eta edozein ikasgaietan. Era berean, haur liburuak helduen liburuetan bezala genero askotarikoak daude: misteriozkoak, bildumak, album ilustratuak, abenturazkoak, fantastikoak, alegiak, eta abar. Eta guzti hauek oso tresna baliagarriak dira emozioen arloa lantzeko. Morónen (2010) arabera, azkenean irakurketaren bitartez haurrek literatura mundua ezagutzen hasten dira, eta aldi berean,

beraien barne munduko kezken erantzunak aurkitzen dituzte. Hasi baino lehen jakin behar da zer diren ipuinak, haur ipuinak izenak dioen bezala haurrentzat idatziak izan diren ipuinak dira. Bestalde, Espainiako Errege Akademiaren (2023) hiztegiaren arabera, ipuinak fikziozko narrazio laburrak dira.

Normalean haur ipuinen helburuak honako hauek dira: haurtzaroa gozamenez eta esperientzia aberasgarriz betetzea, eta hau, ipuinen lanketaren bitartez. Helburuen artean, haurrengan irakurketa sustatzea da. Horrez gain, haurtzaroko gaiak eta arazoak ulertzeko estrategiak eskaintzea irakurle gazteei. Hau da Kasaresek (2021-22) dioen bezala, haurrak ipuinetako pertsonaiekin identifikatzen dira eta ipuinetan kontatzen diren gertaerak haurren egunerokoarekin erlazionaturik daude, ondorioz haurren arazo askoren irtenbidea ipuinetan daude. Baita ere, irakurleengan sormena eta irudimena piztea da. Eta azkenik, eskuzabaltasuna eta elkarbizitzaren baloreak transmititzea, hau da, balore etikoak.

Haur eta gazte literaturan aurkitzen diren liburu klasikoen artean*, Txanogorritxo* (Perrault, 1697) eta *Peter Pan* (Barrie, 1911) daude. Badira ere emozioak lantzen dituzten liburuak, hala nola, *Emoziotegia* (Núñez eta Valcárcel, 2023), *Koloretako munstroa* (Llenas, 2015), *Txinako loreontzia* (2016), eta askoz gehiago.

## 1.3. EMOZIOAK

Gaur egun geroz eta indar gehiago hartzen ari den gaia da, emozioak eta honekin batera hezkuntza emozionala. Pertsona guztien egunerokoan parte hartzen duten bizipenak dira, beraz gizakiaren esentzia direla esan daiteke. Emozioak leku eta une ezberdin askotan bizitzen dira eskolan, etxean, patioan, mendian, goizean, arratsaldean, haurtzaroan eta abarretan. Hauek gure izatearen atal garrantzitsua dira. Horregatik, txikitatik landu behar dira emozioak, egunerokoan askotan bizitzen direlako eta nortasunaren parte direlako. Ildo beretik, garrantzitsua da txikitatik emozioak daudela lantzea, bakoitzak ezaugarri batzuk dituela eta modu ezberdinetan sentitzen direla: batzuk atseginak direla, beste batzuk desatseginak. Horrez gain, emozio bakoitza identifikatzen eta bereizten ikastea beharrezkoa da, bai bakoitzarengan, baita besteengan. Ondoren, emozio bakoitzari dagokion izenak jartzea, hau da, alfabetatze emozionala deritzona, adibidez negar egiten badut eta gauzak egiteko gogo gutxi badut triste nagoela adierazteko gaitasuna garatzea. Eta honekin guztiarekin amaitzeko, kudeatzen ikastea izango litzateke egokiena.

Ondorioz, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza arautzen duen LOMLOE 2022ko ekainaren 22an indarrean jarri zen curriculumean islatzen hasia da hezkuntza emozionala. Haurren garapen integrala bermatzeko, heziketa emozionala gehiago lantzen hasi behar da, azkenean hezkuntza emozionala, hezkuntza intelektuala bezain garrantzitsua baita.

Beharrezkoa da jakitea zer diren emozioak, aditu askok emozioen kontzeptuaren definizioa eman dute, hala nola, Bisquerrak (2003), Ramosek (2022) edota Lópezek (2018) eta jarraian hainbat definizio.

Emozioaren definizioekin hasteko, latinetik datorren hitza dela jakin behar da eta *emotio* esan nahi du. Bestalde, Espainiako Errege Akademiako hiztegiaren (2023) arabera, emozioak gogo aldarte bizia eta une batekoak, atseginak edo desatseginak izan daitezkeen sentsazioak dira. Ildo beretik, Bisquerraren (2003) arabera, emozioak kanpo estimulu baten ondorioz gorputzak ematen dituen erantzun ezberdinak dira. Erantzunak modu ezberdinetan eman daitezke: psikologikoak, kognitiboak edota gorputzaren bitartez. Eta emozioak eguneroko bizitzan, jokabidean eta bakoitzaren nortasunean parte hartzen duten "sentsazioak" direla dio. Eta emozio ezberdinak daude: haserrea, tristura, poztasuna eta abar.

Bestalde, Ramosek (2022) egindako ikerketen arabera, emozioak gizaki guztiek bizitzen eta sentitzen dituzten "sentsazioak" dira. Pertsona guztiek bizitzen dituztenez, unibertsalak direla defendatzen du, ondorioz komunikazio sistema amankomuna erabiltzen dira hauek adierazteko, adibidez haserre emozioaren espresioa bekainak jaistea eta muturtu izango litzateke. Beraz, emozioak adierazteko modurik ohikoena aurpegi espresioaren eta gorputzaren bitartez dela dio.

Era berean Lópezen (2018) iritziz, emozioak nortasunean, erabakiak hartzerako orduan, jardueretan eta abarretan eragiten duten egoera konplexuak dira.

Ikus daitekeenez, emozioen definizio asko daude eta askotan kontzeptuak errepikatzen dira, hala nola, gorputzak ematen dituen erantzunak, erreakzioak, iraupen laburrekoak eta biziak. Beraz, definizio guztiak irakurri ondoren, eta haietan oinarritu eta gero, modu "informalagoan" definituz gero, honela izango lirateke: emozioak kontrolatu ezin ditugun sentsazioak dira, kanpo estimulu batek eragindakoak eta iraupen laburreko eta biziak dira. Horrez gain, emozioak gorputza eta aurpegiaren bitartez adierazten dira.

Behin emozioak zer diren jakin eta gero, desberdindu behar dira emozioak eta sentimenduak. Gizartean ohitura dago sentimenduak eta emozioak nahasteko, antzeko bizipenak direlako eta erlazionaturik daudelako. Emozioak aurreko definizioetan oinarrituz gero, esan daiteke: gizaki guztiek bizitzen dituzten sentsazioak direla, kontrolatu ezin direnak. Eta normalean, kanpo estimulu batek eragindakoak dira eta iraupen laburreko eta biziak dira. Bestalde, sentimenduak emozioen interpretazioak dira. Sentimenduak, bizitzen diren emozioak identifikatzen, ulertzen eta hauei zentzua emateko modua dira. Emozioak baino iraupen luzeagokoak dira. Horrez gain, sentimenduetan bakoitzaren esperientzia, balioek, sinismenek eta kulturek eragiten dute. Laburbilduz, emozioak kanpo estimuluen erantzun automatikoak dira sentimenduak, berriz, emozio horien interpretazioak eta esperientzia subjektiboak. Emozioak unibertsalagoak eta gizartean partekatuagoak dira, bestalde, sentimenduak pertsonalagoak eta subjektiboagoak dira.

Laburbilduz, ikus daiteke emozioen kontzeptua definitzea zaila dela eta definizio asko daudela. Ildo beretik, nahiz eta definizio ezberdinak izan arren, guztiek amankomuneko ezaugarriak dituzte: gogo aldarteak, kanpo estimulu batek eragindakoak, bat-batekoak direla, unibertsalak direla eta jokabidean eragiten dutela. Amaitzeko, emozioak gizakiaren bizitzako alderdi naturalak dira, horregatik beharrezkoa da jakitea emozioak zer diren, horrela bakoitzaren barne mundua hobeto ulertzeko eta ingurukoekin interakzioan aritzeko.

### *1.3.1. EMOZIO MOTAK ETA BERE SAILKAPENA*

Psikologo eta aditu ezberdinak emozioen sailkapena egiten saiatu dira, eta sailkapen ezberdin asko egon arren, ez dago behin betiko bat, azkenean egile bakoitzak bere irizpideak jarraitzen baititu.

Aditu gehienek emozioak sailkatzeko erabili dituzten irizpideen artean bi sailkapen mota bereizi dituzte alde batetik emozio positiboak, negatiboak eta anbiguoak eta bestetik oinarrizko emozioak eta bigarren mailako emozioak. Ikus daitekeen bezala, egile bakoitzak bere irizpideak erabili ditu emozioak sailkatzeko orduan.

Emozioen sailkapen ezberdinekin hasteko, lehendabizi aipatuko den emozio positibo eta negatiboena izango da. Sailkapen hau defendatu zuten ikerlarien artean, Lazarus, Estatu Batuetako psikologoa dago. Lazarusek (1991) proposatutako emozioen sailkapena ebaluazio kognitiboaren teorian oinarritzen da. Bere ikerketetan esaten duen bezala, emozioak hiru motatakoak izan daitezke:

- Emozio positiboak: helburu pertsonal bat lortzearen emaitza diren horiek, eta hauek atseginak dira. Multzo honen barruan poztasuna, zoriontasuna, harro egotea eta antzekoak diren emozioak sartzen ditu.
- Emozio negatiboak: helburu pertsonala lortzeko zailtasunak izatearen emaitza dira, emozio hauek normalean desatseginak izaten dira. Talde honetan sartzen dira beldurra, haserrea, tristura, errua, lotsa, etab.
- Emozio anbiguoak (*borderline*): neutroak diren emozioen izendapenarekin ere ezagutzen dira, ez dute eragiten ez emozio positiborik ezta negatiborik ere. Talde honetan harridura emozioa legoke.

Bestalde, beste egile askok egin duten sailkapena honako hau izan da: oinarrizko emozioak edo lehen mailako eta emozio sekundarioak edo bigarren mailakoak. Sailkapena aurkeztu aurretik, oinarrizko emozioak eta bigarren mailakoak zer diren jakin behar da. Bisquerraren (2009) arabera oinarrizko emozioak, estimulu batek eragindako erantzuna sortzen dituztenak dira. Aldiz, bigarren mailakoak, oinarrizko emozioak sentitu eta gero sortzen diren horiek, oinarrizko emozioen menpe daudela esan daiteke.

Oinarrizkoen sailkapena egiterakoan, hau da, emozioak izendatzerakoan eta multzoak definitzerakoan ezberdintasunak daude. Egile batzuek sei oinarrizko emozio daudela diote, beste batzuek oinarrizko zortzi, oinarrizko hiru, eta abar. Beraz, egile bakoitzak, bere irizpideak jarraitu ditu multzoak definitzeko orduan. Jarraian, Golemanek (1996) eta Ekmanek (1992) emandako oinarrizko emozioen sailkapena aurkezten da:

- Goleman (1996) psikologoaren arabera, oinarrizko zortzi emozio daudela defendatzen du eta emozioak hauek direla dio: haserrea, tristura, beldurra, poza, maitasuna, harridura, lotsa eta nazka.
- Ekman (1992) psikologoaren arabera, giza kultura guztietan unibertsalak diren sei oinarrizko emozio daude eta oinarrizko emozio horiek honako hauek dira: poza, tristura, harridura, haserrea, beldurra eta gaitzespena.

Ondorioz, ikus daiteke oinarrizko emozioen kopuru zehatzik ez dagoela, egile bakoitzak bere irizpideak jarraitzen dituela multzoak zehazteko orduan, nahiz eta askok amankomuneko oinarrizko emozioak erabili. Bestalde, egile gehienek dioten bezala, oinarrizko emozioen konbinazioaren ondorioz gainontzekoak sortzen dira, hau da, bigarren mailakoak, eta horregatik, daude hainbeste emozio. Adibidez, Goleman (1996) psikologoaren arabera, oinarrizko zortzi emozioetatik gainontzekoak sortzen dira. Jarraian, bere oinarrizko emozioen sailkapena eta oinarrizkoetatik sortzen diren bigarren mailakoen adibide batzuk ematen dira:

- Haserrea: amorrua, sumindura, gorrotoa, biolentzia, etab.
- Tristura: pena, bakardadea, atsekabea, etab.
- Beldurra: antsietatea, ikara, kezka, urduritasuna, ezustekoa, izua, etab.
- Poza: zoriontasuna, gozamena, lasaitasuna, dibertsioa, plazerra, euforia, etab.
- Maitasuna: onarpena, konfiantza, laguntasuna, maitemintzea, etab.
- Harridura: txundidura, miresmena, etab.
- Lotsa: errua, iraina, ahaldura, etab.
- Nazka: antipatia, mespretxua, etab.

Bestalde, Ekmanek (1992), Estatu Batuetako psikologoak, mundu mailan dauden oinarrizko emozioen sailkapena egin zuen. Bere irizpideen arabera, oinarrizko sei emozio unibertsal daude, hau da, mundu osoan nahiz eta kultura, garai, genero edota pertsonalitate ezberdineko pertsonak izan, bizitzeko eta adierazteko modu antzekoak dituzten eta berdin identifikatzen diren emozioak direla dio. Ekmanek (1992) bere lanean, oinarrizko sei emozio hauek definitzen eta bakoitzaren adierazteko modua azaltzen du:

1. Poza: emozio positiboa da eta irribarre batekin eta masailak goian daudenean adierazten da.

2. Tristura: negatiboa den emozioa da eta ezpainen eta begiradaren beheranzko kurbadurarekin adierazten da.
3. Haserrea: emozio negatiboa da eta honen adierazteko modua begirada biziarekin, bekainak zimurturik eta ahoa tenkaturik.
4. Beldurra: emozio negatiboa da eta bekainak altxaturik eta ahoa irekita adierazten da.
5. Harridura: sorpresa neutroa den emozioa da eta ahoa zabalik eta bekainak altxaturik adierazten da.
6. Nazka: emozio negatiboa da eta sudurra igurzten eta begiak estutzen dituen muskuluaren uzkurdura arinarekin adierazten da.

### *1.3.2. EMOZIOAK ETA CURRICULUMA, LOMLOE*

Egun indarrean dagoen LOMLOE (2022) curriculumeko helburuei erreparatuz gero, helburu nagusia Espainiako hezkuntza-sistemaren kalitatea eta ekitatea hobetzea da, eta testuinguru horretan, hezkuntza emozionala sartzen da. Lege honek ez da bereziki emozioetara bideratzen, baina hezkuntza emozionalarekin lotutako zenbait helburu bere gain hartzen ditu. Ildo beretik, LOMLOEk hezkuntza emozionala kontuan hartzen hasten du eta berariazko gaitasun bezala definitzen du, baita hezkuntza etapa osoan egon beharreko edukia dela defendatzen du. Ildo beretik, LOMLOEk (2022, 57. or.) agertzen den bezala: "hezkuntza emozionala ezinbestekoa da gizaki orekatuak eta gainontzekoekin harreman sendoak eta gogobetegarriak izaten prestatzeko. Horregatik, beharrezkoa da ikasleei behar dituzten jakintzak, tresnak eta baliabideak ematea beren emozioak identifikatzeko, kudeatzeko eta asertiboki adierazteko."

Bestalde, LOMLOEk (2022) ezartzen dituen hezkuntzako helburuetako bat ikasleen adimen emozionala garatzea da, horretarako, balioetan oinarritutako hezkuntza eta pertsonaren prestakuntza integrala sustatuz.

Laburbilduz, LOMLOEk (2022) hezkuntza emozionala onartzen du eta ikasleen garapen integralean duen garrantzia goraipatzen du, nahiz eta oraindik, ez zaion benetan duen garrantzia ematen. Era berean, hezkuntza emozionala eta ikasleen garapen integrala bermatzeko, hezkuntza-praktika berritzaileak garatzea proposatzen ditu, horrela ikasleen integrazioa sustatzeko eskola-curriculum barruan.

### *1.3.3. EMOZIOEN LANKETAREN GARRANTZIA*

Emozioen lanketaren garrantzia, geroz eta entzunagoa den gaia da eta zuzeneko erlazioa dauka hezkuntza emozionalarekin. Ildo beretik, hezkuntza emozionala geroz eta garrantzitsuagoa den gizakiaren garapenean parte hartzen duen alderdietako bat da. Beraz, honen lanketa beharrezkoa da

pertsona ororen garapen integralerako, horregatik, psikologo, hezitzaile, irakasle, ikertzaile eta aditu askok ikerketa ugari egin dituzte. Ikerketak egin dituzten aditu gehienek hezkuntza emozionala aldarrikatzen dute, hau da, honen lanketa eskoletan.

Ildo beretik, emozioak pertsonen egunerokoan dauden bizipenak dira eta ezinbestekoak dira pertsonen garapenerako, eta horregatik, txikitatik heziketa emozionala jaso behar da. Heziketa emozionala edo hezkuntza emozionala jasotzeko modu eta baliabide asko daude. Baliabide horietako bat ipuinen bitartez lan egitea izango litzateke, azkenean, ipuinek emozio ezberdin asko sentitzeko, ezagutzeko eta lantzeko aukera eskaintzen dute, eta aldi berean, literatura eta hizkuntza lantzeko aukera.

Emozioen lanketak haurrengan sortarazten dituen onurak askotarikoak dira, hala nola, egoera ezberdinetan bizi dituzten emozio ezberdinak ezagutzen, identifikatzen eta pixkanaka kudeatzen ikasten laguntzen die. Horren ondorioz, haien burua hobeto ezagutzen hasten dira eta nortasunaren eraikitze prozesuan murgiltzen dira ondorioz, haien autoestimua hobetzen dute. Era berean, emozioak barneratuak izateak giro atseginagoak eta afektiboagoak sortarazten ditu gela barruan.

Horretarako, lan honetan proposatzen da emozioen lanketa ipuinen bitartez, hau da, emozio ezberdinak lantzen dituzten ipuinen bitartez. Horrela, ipuinekin gozatzea, istorio ezberdinetan murgiltzea, ezagutzak aberastea eta garrantzitsuenetariko bat: irakurle zaletasuna sustatzea lortzeko aukera emanez.

Bestalde, Golemanek (1996) bere liburu "*Adimen emozionala*" deituan azaltzen duen bezala, haurrek gaitasun ezberdinak bereganatu behar dituzte beraien heziketa ibilbidean zehar, eta ez soilik gaitasun kognitiboak. Bere ustez, bereganatu beharreko gaitasun guztiak garrantzitsuak dira. Horregatik bereganatu beharreko gaitasunen artean, gaitasun emozionala dago. Gaitasun emozionala sentimenduen identifikazioan eta izendatzean oinarritzen da, ondoren hauek adierazi eta kontrolatu ahal izateko. Nahiz eta gaitasun ezberdinak aldarrikatzen zituen, Golemanek (1996) bere lanean, gaitasun kognitiboa ere defendatu zuen. Bere ustez, gaitasun kognitiboa beharrezkoa zen barne elkarrizketa kontrolatu ahal izateko, ikuspuntu ezberdinak ulertzeko eta errespetatzeko eta arauak ulertzeko. Laburbilduz, Golemanek (1996) esaten duen bezala, haurren garapen integralerako beharrezkoak dira gaitasun guztiak lantzea eta garatzea eta hori hezkuntza emozionalaren bitartez izan behar dela dio.

Amaitzeko eta aurrekoarekin erlazionaturik, norberak bizi dituen emozioak hobeto ezagutzen eta ulertzen baditu, beste alderdietan hobekuntzak izango ditu, hau da, arretan, memorian, ulermenean eta interpretazioan, sormenean, erlazio sozialetan eta beste askotan. Ondorioz, emozioen lanketa oso garrantzitsua dela argi ikus daiteke.

### *1.3.4. LANDUKO DIREN EMOZIOAK*

Jarraian landuko diren emozioen definizioak, kasu honetan haserrea, beldurra, tristura, nazka, eta poza izango direnez, hauek definitzea beharrezkoa ikusten da.

*Haserrea*

Lehendabiziko emozioa haserrea izango da, Ekmanek (1992) dioen bezala, haserrea oinarrizko emozioetako bat da, eta aldi berean, emozio negatiboa. Haserrea gertatzen da, helburu bat lortzeko zailtasunak daudenean, ezin denean lortu edota egoera desatsegin baten aurrean. Emozio honen ezaugarri nagusiena sortzen duen deserosotasuna, tentsioa edo frustrazioa da, eta hauek modu ezberdinetan ager daitezke, hala nola, oihuka eta aurpegia gorrituz. Haserrearen familiakoak dira amorrua, gorrotoa, haserre bizia eta horrelako beste hainbat.

*Beldurra*

Beldurra, Ekmanek (1992) dioen bezala, haserrea bezala emozio negatiboa eta oinarrizkoa da. Hainbat jatorri izan dezake, hala nola, ikara, ezezaguna den zerbaitek eraginda, arrisku edota urduritasun egoera baten aurrean egotean. Beldurrak, deserosotasuna eta tentsioa eragiten du, baita sentsazio txarrak izatea. Emozio honen ezaugarrien artean, gorputzaren dardarak daude. Beldurraren familiakoak dira fobia, izua, ikara, laztura, sustoa eta antzekoak diren beste emozioak.

*Tristura*

Tristura, Ekmanek (1992) dioen bezala,  emozio negatiboa da, eta aldi berean ere, oinarrizkoa. Emozio honek jatorri ezberdinak izan ditzake, hala nola, galeraren bat, harremanak amaiera hartzea, mina edo antzeko egoerengatik eman daiteke. Tristurak gizakiaren bizitzan parte hartzen du, eta bakoitzarengan erreakzio ezberdinak sor dezake. Ezaugarrien artean, pertsonaren gogo aldartearen eta jarduera kognitiboaren beherakada eragiten du. Tristuraren familiakoak dira depresioa, pena, frustrazioa, etsipena, dezepzioa eta antzekoak.

*Nazka*

Nazka, Ekmanek (1992) dioen bezala, beste oinarrizko emozio negatibo bat da eta zerbait desatsegina gertatzean sortzen da. Nazkaren familiakoak narda da.

*Poza*

Amaitzeko, pozaren emozioa eta Ekmanek (1992) dioen bezala, oinarrizko emozio positiboa da eta zerbait atsegina gertatzean, helburu pertsonalen bat lortzean, arrakasta lortzean, harreman positiboak izatean edo gaizki egona murriztean sortarazten den emozioa da. Bere ezaugarrien artean, irribarrea, euforia eta asetasun sentimendua izatea, positibotasunaren eta optimismoaren gorakada. Pozaren familiakoak dira poztasuna, zoriona, euforia, alaitasuna, bizipoza eta horrelakoak diren gainontzekoak.

### *1.3.5. HEZKUNTZA EMOZIONALA*

Hezkuntza emozionala egun eztabaida ugari sortzen ari den gaia da, eta aldi berean aldaketa asko jasaten ari dena. Bisquerrak (2011) bere lanean (*Educación emocional. Propuesta para Educadores y familiares*) defendatzen duenez hezkuntza emozionalaren egungo erronka curriculumean dago, hau da, behar bezalako arreta jasotzen ez duten premia eta gizarte beharrak asetzea da. Premien artean antsietatea, estresa, arrisku-portaerak, indarkeria, depresioa eta antzekoak diren egoerak daude. Hori guztia, analfabetismo emozionalaren ondorio larri bat da.

Dena dela, komenigarria litzateke hezkuntza emozionala zer den jakitea. Aurreko kontzeptuak bezala definizio asko daude, Bisquerraren (2011) arabera hezkuntza emozionala, hezkuntza-prozesu jarraitua eta iraunkorra da, hau da, ikasleen hezkuntza etapa guztietan dagoena eta eguneroko erronkei aurre egiteko gaitasun emozionalak garatzea helburu duena, horrela bakoitzaren eta ingurunearen ongizatea hobetuz. Beraz, esan daiteke hezkuntza emozionala emozioekin erlazionaturiko heziketa dela, zeinetan ongizatea helburu duen.

Bestalde, hezkuntza emozionalaren helburua Bisquerraren (2000, 2008, 2009; ap. 2011) dioen bezala, gaitasun emozionalak eta ongizatea garatzea da, horrela bakoitzak bere emozioak eta besteenak antzemateko eta identifikatzeko, ulertzeko eta bakoitzari dagokion izenarekin adierazteko, kudeatzeko, emozio negatiboak kontrolatzeko eta positiboak direnak indartzeko, zailtasunak eta arazoak kudeatzen ikasteko, motibazioa eta autoestimua hobetzeko.

Jarraian, Casternaok (2022) hezkuntza emozionalaren inguruan egindako lanean ondorioztatu dituen onurak aipatzen dira. Hezkuntza emozionala ikasgeletan lantzearen ondorioz ikasle motibatuagoak izatea daude, eta ondorioz, ikasleen jakin-mina eta ikasteko gogoa pizten da. Era berean, bakoitzak bere burua ongi ezagutzea, indarguneak eta ahuleziak ondo ezagutzea. Era berean, talde lanean aritzeko gaitasun handiagoa garatzen dute, eta arazoak konpontzeko erraztasun handiagoa eskuratzen dute.

Beraz, ikus daiteke hezkuntza emozionalak eragin positiboak dituela haurren garapenean. Azkenean, emozioak egunero eta umeen garapen osoan zehar bizitzen diren aldaketak dira, horregatik, beharrezkoa da hauen inguruko heziketa ikasleek jasotzea. Horrela, bakoitzak sentitzen dituen emozioak ezagutzen ikasten ditu, eta horren ondorioz, bakoitzak bere burua ongi ezagutzeko baliabideak eskuratzen ditu. Amaitzeko, Casternaoren (2022) arabera, gaitasun emozionalak ikasleen alderdi guztiekin loturik daude, eta gaitasun emozional onak izateak gure garapen akademikoan eragin positiboak ditu.

### *1.3.6. ADIMEN EMOZIONALA*

Gaur egun, hezkuntza emozionalak eta adimen emozionalak benetan merezi duen garrantzia hartzen ari dira, eta psikologo, ikertzaile eta aditu askok, honen inguruko ikerketa asko egin dituzte.

Lehendabizi, adimen emozionala zer den jakin behar da, jarraian adimen emozionalaren definizioa ezberdinak, Salovey eta Mayerrek (1990) edota TTIKLIK (2022) egindakoa.

Salovey eta Mayerren (1990) arabera, adimen emozionala adimen mota bat da, zehazki, adimen soziala. Eta bakoitzaren eta besteen emozioak ulertzen, identifikatzen, kudeatzen, adierazten eta zaintzean oinarritzen da. Horrez gain, emozioak bereizteko gaitasunean oinarritzen da, horrela norberaren pentsamenduak eta ekintzak gidatu ahal izateko. Bestalde, *Ttiklik eus* elkarguneak (2022) dioen bezala, adimen emozionala bakoitzak bere emozioez jabetzean datza, horiek identifikatzea eta ulertzen ikastea, baita besteenez jabetzea eta haiengan identifikatzea da. Beraz, adimen emozionala sentitzen diren emozioak ezagutzea, identifikatzea eta kudeatzean datza eta horretarako aurretiko lanketa bat behar da.

Era berean, adimen emozionala ikerketarako gaia bihurtu da azken urteotan, eta geroz eta garrantzi handiagoa hartu du, horren adibide dira egile ezberdinen ikerketak. Ildo beretik, hezkuntza-sisteman adimen emozionalari ez zaio eman merezi duen garrantzia, aldiz, beste adimen mota batzuk izan dira nagusi, hala nola, Gardnerrek (1987) aipatzen dituen adimen matematikoa eta linguistikoa. Hau da, garrantzi handiagoa eman zaio matematiketan ona izateari musikan baino, eta hori aurreiritzi okerra da. Bakoitzak zaletasun ezberdinak dituelako, hau da, gauza batzuetan besteetan baino erraztasun eta abilezia handiagoak izanez, eta hori normala da.

Adimen emozionalaren inguruan egindako ikerketa ezberdinetan argitaraturako emaitzen arabera, ikusi da adimen mota ezberdinak daudela eta guztiak beharrezkoak eta garrantzi berdinekoak direla. Ikerketa nagusietakoa da Gardnerren (1987) *Adimen Anitzen Teoria*, bertan azaltzen du gizakiak adimen mota ezberdin asko dituela eta guztiak beharrezkoak direla gizakiaren garapenerako.

Gardnerrek (1987) dioen bezala, zortzi adimen mota ezberdin daude: adimen linguistikoa, adimen logiko-matematikoa, adimen espaziala, adimen zinetiko-korporala, adimen musikala, adimen interpertsonala, adimen intrapertsonala eta adimen naturalista. Kasu honetan, emozioez arduratzen diren adimenak intrapertsonala eta interpertsonalak dira. Ondorioz, irakasleen eta hezkuntza-sistemaren erronka hauxe da: adimen guztiak lantzea. Ikasle guztiak bertan parte hartuko dute, adimenak…

### ***1.3.7. ADIMEN EMOZIONALA AZTERTZEKO INKESTA: EMOZIOAK EZAGUTZEN DITUZU?***

Adimen emozionalari pixkanaka merezi duen garrantzia eta arreta ematen hasi zaio, egile eta aditu ezberdinen aldarrikapenei eta ikerketei esker. Hala nola aurretik aipatutako, Gardnerren (1987) *Adimen Anitzen Teoria.* Bere ikerketen arabera, zortzi adimen mota ezberdin daude eta guztiak beharrezkoak dira pertsonen garapen integralerako. Nahiz eta adimen mota guztiak garrantzitsuak izan, emozioetan eragiten duten adimenak hauek dira: intrapertsonala eta interpertsonalak. Beraz,

emozioak behar bezala identifikatzen, ezagutzen, ulertzen eta kudeatzen ikasteko adimen emozionala eta hezkuntza emozionala landu behar da.

Ondorioz, emozioen inguruko inkesta bat prestatu da, Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko bigarren mailako ikasleentzat. Honen helburua ikasleen gaitasun emozionalak eta adimen emozionala aztertzea eta erregistraturik gelditzea da, horrela hezkuntza emozionalaren inguruko jarduerak prestatzeko. Inkestaren izena *Emozioak ezagutzen dituzu?* da. Aztertu nahi diren alderdien artean honako hauek daude:

- Ikasleen autokontzientzia emozionala, hau da, nola identifikatzen eta kudeatzen dituzten emozioak.
- Gaitasun emozionalak ikustea, hau da, emozio ezberdinak ezagutzen dituzte edo ez.
- Emozioak egoera hipotetiko ezberdinetan nola kudeatzen dituzten ikustea.
- Enpatia aztertzea.
- Emozio ezberdinak nola adierazten dituzten ikustea.

Horretarako, bederatzi galdera motzez osaturik dagoen test moduko inkesta pasako zaie, bakoitzak lau erantzunekin. Aipatu beharra dago, ez dagoela erantzun okerrik, guztiak ongi egon daitezke. Azkenean, bakoitzaren esperientzia subjektiboaren eta galderen interpretazioaren araberakoa baita. Inkesta Gardnerren (1987) *Adimen Anitzen Teorian* oinarritzen da.

Jarraian inkestaren esteka: https://acortar.link/3t9Ogc

**1. Irudia**

*Lehenengo sektore diagrama.*




*Sektore diagrama*

Galdera honetan espero zen erantzuna pozik zen, ikus daitekeen bezala % 100ek, hau da, guztiek emozio egokia identifikatu dute.

**2. Irudia**

*Bigarren sektore diagrama*




*Sektore diagrama*

Galdera honetan espero zen erantzuna triste emozioa zen. Ikus daitekeen bezala gehiengoak emozioa ongi identifikatu du, hau da, % 86,7k. Bestalde, ikasleen % 6,7k maitasuna markatu dute eta % 6,7k poztasuna.

**3. Irudia**

*Hirugarren sektore diagrama*




*Sektore diagrama*

Galdera honetan espero zen erantzuna pozik egotea zen, ikasleen erdiak baino gehiagok behar bezala identifikatu dute, hau da, % 53,3k. Nahiz eta % 46,7k harridura emozioaren erantzuna markatu. Aurretik aipatu den bezala, erantzun guztiak subjektiboak direnez ez dago erantzun okerrik.

**4. Irudia**

*Laugarren sektore diagrama*




*Sektore diagrama*

Galdera honetan espero zen erantzuna alai egotea zen, ikus daitekeen bezala ikasle guztiek, hau da, % 100ek ongi identifikatu dute emozioa.

**5. Irudia**

*Bosgarren sektore diagrama*




*Sektore diagrama*

Galdera honetan espero zen erantzuna urduri egotea zen, ikus daitekeen bezala ikasleen gehiengoak, hau da, % 80k ongi identifikatu dute emozioa. Bestalde, % 13,3k pozik sentitzen direla adierazi dute eta % 6,7k triste.

**6. Irudia**

*Seigarren sektore diagrama*




*Sektore diagrama*

Galdera honetan espero ziren erantzunak alde batetik lasaitasun txokora joatea zen, eta bestetik arnas sakona hartzea eta hamar arte zebatzea edo musika lasaia jartzea ziren. Biak zuzenak dira. Beraz, emaitzen arabera, % 86,7k lasaitasun txokora joaten dira haserre daudenean, aldiz, % 6,7k arnas sakona eta hamar arte zenbatzen dute eta % 6,7k oihukatzen dute.

**7. Irudia**

*Zazpigarren sektore diagrama*




*Sektore diagrama*

Galdera honetan espero ziren erantzunak hauek dira: negar egitea edo lagun batekin hitz egin eta besarkada bat ematea. Emaitzei erreparatuz gero, ikus daiteke % 53,3k negar egiten dutela triste daudenean. Bestalde, % 33,3k lagun batekin hitz egiten dute, eta aldiz, % 13,3k egun osoan lo egiten dute.

**8. Irudia**

*Zortzigarren sektore diagrama*




*Sektore diagrama*

Galdera honetan espero ziren erantzunak bi dira: familiarekin egon lasaitzeko edo negar egitea. Ikus daitekeen bezala, ikasleen % 80ek familiarekin egoten dira lasaitzeko, bestalde % 13,3k ohe azpian ezkutatzen dira eta % 6,7k gauza arriskutsuak egiten ditu.

**9. Irudia**

*Bederatzigarren sektore diagrama*




*Sektore diagrama*

Galdera honetan espero zen erantzuna lagunekin edo familiarekin jolasten egotea zen. Emaitzei erreparatuz gero, ikus daiteke % 80ek lagunekin edo familiarekin jolasten egoten dira, bestalde % 13,3k korrika egiten dute, eta aldiz, % 6,7k norbait jo.

# 2. MARKO PRAKTIKOA

## 2.1. SARRERA

Testuingurua kontuan izanda, proposamen didaktiko hau Lehen Hezkuntzako bigarren mailako ikasleentzat zuzendua dago. Proposamen didaktiko honen helburua haurrek beren emozioak identifikatzen, ezagutzen, ulertzen eta kudeatzen ikastea da, baita besteengan identifikatzea haur eta gazte literaturaren lanketaren bitartez ere.

Horretarako haur eta gazte literaturak duen ahalmenaz probestuko gara, literatura ezagutzak transmititzeko modu bat delako eta haurrekin ikuspuntu ezberdin batekin lantzeko aukera eskaintzen duelako, hain zuzen ere ikuspuntu ludiko eta emozionaletik. Proposamen didaktikoa garatzeko 10 saio beharko dira, guztira bi aste.

Proposamenaren garapena malgua, irekia eta ikasleen interesetara egokituta dago.

## 2.2. TESTUINGURUA

Proposamen didaktikoa Atargi eskualdeko eskolan kokatzen da. Atargiko eskola Atarrabian (Nafarroa) kokaturik dagoen Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoa da. Eskola honetako hezkuntza eskaintza: D eredua (Euskara + Ingelesezko errefortzua) da.

Covid-19 zela eta, Atargiko eskolak ordutegi jarraitua ezarri zuen, ordutegi jarraitua goizeko bederatzietatik eguerdiko ordubitara da. Nire proposamena Euskara eta Literatura (D eredua) ikasgaian oinarrituta dago, proposamena aurrera eramateko 10 saio beharko dira, hau da, bi aste.

Bestalde, Atargi herri eskola denez Atarrabiako ikasleak ez ezik zonaldeko hogei herri txikietako haurrak jasotzen ditu eta guztira 2022/2023 ikasturtean 319 ikasle matrikulaturik daude.

Halaber, eskola baliabideei dagokienez, Atargiko eskola eraikin bakarraz osaturik dago eta ikastetxeak hiru solairutan banaturik dago, zikloen arabera. Metodologiari dagokionez, Proiektuen Oinarritutako Irakaskunta (POI) erabiltzen dute. Alegia, hezkuntza integrala du helburu zeinetan ikaslea hezkuntza prozesuaren protagonista den.

Proposamen didaktikoa Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko bigarren mailarako prestatuta dago, hau da, 7-8 urtetako ikasleentzat. Gelan 20 ikasle daude, 8 neska eta 12 mutil. Bi ikaslek Berariazko Hezkuntza Laguntza Premiak (BHLP) dituzte. Batek Dislexia dauka eta horren ondorioz atzerapen kognitibo handia dauka hizkuntzan, matematiketan eta oinarrizko gaitasun motorretan. Aldiz bigarren ikasleak, gaixotasun baten ondorioz edukietan atzerapenak eragin dizkio.

Proposamena garatzeko ikasleen ohiko gela erabiliko dut eta azken saioa, hau da, 10. saioa ikastetxeko liburutegian izango da.

## 2.3. H*ELBURUAK*

Helburuekin hasteko, Nazio Batuen Erakundeak (UNESCO) Batzar Nagusiak Garapen Jasangarrirako 2023 Agenda onartu zuten 2015ean. Nazio Batuen Erakundeak (2015, euskaratua) dioen bezala, Garapen Iraunkorreko 2030eko Agendan, "pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza-plana, bake unibertsala eta justiziarako sarbidea indartzea du asmoa. Bertan, hamazazpi helburu planteatzen dira eta ehun eta hirurogeita bederatzi xede integratuak eta zatiezinak ditu, ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-arloak barne hartzen dituztenak". Beraz, Nazio Batuen Erakundeak (2015) 2023 Agendan agertzen diren helburuen artean honako hauek dute zuzeneko erlazioa: hirugarrena, hau da, osasuna eta ongizatea. Helburu honen erronka, bizitza osasuntsua bermatzea eta adin guztietan ongizatea sustatzea". Horrez gain, laugarren helburua ere, hau da, kalitatezko hezkuntza bermatzearena eta honen erronka honako hau da: "hezkuntza inklusiboa, bidezkoa eta kalitatezkoa bermatzea, eta bizitza osoan ikasteko aukerak sustatzea guztiontzat". Amaitzeko, nahiz eta zeharkako helburua izan, bosgarrena genero berdintasuna bermatzea da. Honen helburua "generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea".

Jarraian dagoen taulan proposamen didaktiko honen helburuak txertatu dira. Helburuak txertatzerako orduan indarrean dagoen Nafarroko LOMLOE (2022) curriculumetik ateratakoak dira: etapako helburuak eta helburu orokorrak. Halaber, helburu didaktikoak nire proposamenarekin zuzenean lortu nahi ditudanak dira.

**1. Taula**

Euskara eta Literaturako (D eredua) etapako helburuak, helburu orokorrak eta helburu didaktikoak

| ETAPAKO HELBURUAK | HELBURU OROKORRAK | HELBURU DIDAKTIKOAK: |
|---|---|---|
| 8. artikulua. Etaparen helburuak. Haurrek honako gaitasun hauek gara ditzaten lagunduko du Lehen Hezkuntzak:<br>a. Taldeko nahiz bakarkako lanerako aztura, ikastean ahalegina egitekoa eta erantzukizunez aritzekoa, eta norberarengan konfiantza, zentzu kritikoa, ekimena, jakin-nahia, interesa eta sormena izateko jarrerak ikasketa prozesuan, eta ekintzailetza. | Emozioak identifikatzen, ulertzen, ezagutzen, interpretatzen eta kudeatzen ikastea, bai bakoitzarenak bai | • Emozioak identifikatzea, bereiztea eta hauek kudeatzen ikastea.<br>• Sentitzen dituzten emozioak hitzez adierazten ikastea.<br>• Haur eta gazte literaturaz gozatzea.<br>• Literatura lan txikiak idazteko gai izatea. |

| | | |
|---|---|---|
| b. Euskaraz jakin eta hura modu egokian erabiltzea, eta irakurtzeko azturak garatzea.<br>c. Irudikapen eta adierazpen artistikoak erabiltzea eta ikusizko nahiz ikus-entzunezko proposamenak eraikitzen hastea. | besteengan. Horretarako, ipuinen bitartez. | • Idazketa arauak eta ortografia errespetatzea.<br>• Entzunezko testuak ulertzeko gai izatea.<br>• Ikus-entzunezko baliabideetatik idei garrantzitsuenak ateratzeko gai izatea. |

Etapako helburuak, helburu orokorrak eta helburu didaktikoak.

## 2.4. OINARRIZKO JAKINTZAK

Aurretik aipatu den bezala, programazio hau irekia, malgua eta haurren interesetara egokitua dago. Proposamen didaktiko honetarako aukeraturiko oinarrizko jakintzak LOMLOE lege berriaren 67/2022 Foru Dekretutik eta 2022ko 130. Nafarroko Aldizkari Ofizialetik ateratakoak dira. Proposamen didakikoan oinarrituz curriculumetik ateratako oinarrizko jakintzak Euskara eta Literatura (D eredua) blokekoak dira, zehazki lehenengo ziklokoak. Jarraian curriculumetik, ikasgaitik ateratako oinarrizko jakintzak dira, zehazki lanarekin erlazionaturik dauden horiek.

*B. Komunikazioa*

**2. Taula**

Euskara eta Literaturako (D eredua) lehenengo zikloko oinarrizko jakintzak.

| LEHENENGO ZIKLOA | |
|---|---|
| B2. Diskurtso generoak | B2.1 Testu tipologiak: narrazioak, deskribapenak eta elkarrizketak |
| B3. Prozedurak | B3.1 Ahozko interakzioa: ahozko interakzio egokia testuinguru informaletan, entzute aktiboa, asertibitatea, elkarrizketaren bidez gatazkak konpontzea eta hizkuntza kortesia. Norberaren eta besteen beharrak, bizipenak eta emozioak enpatiaz adieraztea eta entzutea. |
| | B3.2 Ahozkoaren ulermena: ideiarik garrantzitsuenak identifikatzea eta zentzu globala interpretatzea. Hitzezko nahiz hitzik gabeko hizkuntzaren erabilera diskriminatzaile nabarmenak detektatzea |

| | |
|---|---|
| | B3.3 Ahozko ekoizpena: ahoskera eta intonazioa. Jarrera posturala. Ezagutza eraikitzea eta komunikatzea, ahozko testu eta testu multimodal errazak planifikatuz eta sortuz. |
| | B3.4 Irakurriaren ulermena: irakurriaren ulermeneko oinarrizko estrategiak, irakurketaren aurretik, bitartean eta ondoren. Ideiarik adierazgarrienak identifikatzea eta zentzu globala interpretatzea. Ulermenaren zerbitzura dauden elementu grafikoak eta paratestualak identifikatzea. Irakurketa partekatua. Hitzezko nahiz hitzik gabeko hizkuntzaren erabilera diskriminatzaile nabarmenak detektatzea. |

Lehenengo zikloko Euskara eta literaturako (D eredua) oinarrizko jakintzak, *Komunikazioa.* LOMLOE

*C. Literatura hezkuntza*

**3. Taula**

Euskara eta Literaturako (D eredua) lehenengo zikloko oinarrizko jakintzak.

| LEHENENGO ZIKLOA |
|---|
| C.1 Haur literaturako hainbat lan edo zati erraz lagunduta irakurtzea, ikasleen interesetara egokituak eta irakurketa ibilbideetan antolatuak. |
| C.2 Literatura elkarrizketen bidez lanak laguntzarekin eta modu partekatuan interpretatzeko oinarrizko estrategiak. |
| C.4 Literatura obra osatzen duten funtsezko elementuak (gaia, pertsonaiak, argumentua, espazioa) eta obraren esanahiaren eraikuntza lotzea, lagunduta. |
| C.8 Literatura asmoko testuak sortzea, emandako ereduetatik abiatuta |
| C.9 Ikasgelako edo ikastetxeko liburutegia erabiltzea, lagunduta, partekatutako literatura jardueren agertoki gisa. |

Lehenengo zikloko Euskara eta literaturako (D eredua) oinarrizko jakintzak, *Literatura hezkuntza*. LOMLOE

*D. Hizkuntzaren eta haren erabileren gaineko hausnarketa, ahozko testuak, testu idatziak edo testu multimodalak sortzeko eta ulertzeko proposamenen esparruan*

**4. Taula**

Euskara eta Literaturako (D eredua) lehenengo zikloko oinarrizko jakintzak.

| LEHENENGO ZIKLOA |
|---|
| D.2 Ahozko hizkuntzaren eta idatzizko hizkuntzaren arteko oinarrizko desberdintasunak. |
| D.3 Hiztegia eskuratzeko oinarrizko prozedurak. Hitz batzuen eta besteen arteko esanahi erlazioari buruzko gogoeta testuinguruan kokatzea. |
| D.5 Testuen koherentziarako eta kohesiorako oinarrizko mekanismoak, denborazko lokailuetan arreta berezia jarriz. |
| D.6 Puntuazioaren oinarrizko markak, testu idatzia antolatzeko mekanismo gisa. |

Lehenengo zikloko Euskara eta literaturako (D eredua) oinarrizko jakintzak, *Hizkuntzaren eta haren erabileren gaineko hausnarketa, ahozko testuak, testu idatziak edo testu multimodalak sortzeko eta ulertzeko proposamenen esparruan.* LOMLOE

## 2.5. FUNTSEZKO KONPETENTZIAK

Proposamen didaktiko hau aurrera eramatean, ikasleek hainbat konpetentzia landu eta bereganatuko dituzte. LOMLOE-n hezkuntza etaparako aurreikusten dira ikasleek bereganatu beharreko funtsezko konpetentzien artean eta unitate didaktiko honekin erlazionaturik daudenak jarraian aipatzen direnak dira.

Lehenik eta behin, Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia izango da, proposamen osoan euskaraz hitz egingo dute. Konpetentzia hau modu ezberdinetan emango da, euskara irakurria, idatzia, hitz egitean eta entzutean.

Eta hirugarrenik, konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa (KPSII) izango da. Ikasleak bakarka eta talde lanean egiten ikasiko dute. Konpetentzia honen helburua bakoitzak bere ikasketa bideratzea eta besteak laguntzeko gai izatea da.

Bestalde, proposamen didaktiko hau burutzean, ikasleek hainbat konpetentzia espezifiko landu eta bereganatuko dituzte. Euskara eta Literatura (D eredua) bloketik ateratako Konpetentzia espeziko bakoitzak bere ebaluazio irizpideak ditu, jarraian LOMLOE (2022) curriculumetik eta nire proposamenarekin erlazionaturik daudenak atera eta txertatu dira:

Bigarrenik, proposamena aurrera eramateko planteatu diren jarduera gehienak talde lanean eta ikasleen arteko komunikazioan oinarritzen dira, ondorioz ekimenerako konpetentzia ere landuko da. Jarraian curriculumetik ateratako taulak dira, txertatu diren taulak lanarekin erlazionaturik daudenak dira.

**5. Taula**

2- Gaitasun berariazkoa

| LEHENENGO ZIKLOA |
|---|
| ***<u>2. gaitasun berariazkoa</u>*** |
| Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzea eta interpretatzea, zentzu orokorra eta informazio garrantzitsuena identifikatzea, eta, lagunduta, alderdi formalak eta oinarrizko edukiak baloratzea, ezagutza eraikitzeko eta komunikazio beharrei erantzuteko. |
| ***Ebaluazio irizpidea*** |
| 2.1. Ahozko testu eta testu multimodal errazen zentzua ulertzea, ohartzea zein diren ideia nagusiak, mezu esplizituak eta mezu inplizitu errazenak, eta, lagunduta, edukiaren eta hitzezkoak ez diren oinarrizko elementuen balorazio kritikoan hastea. |

Lehenengo zikloko Euskara eta literaturako (D eredua) funtsezko konpetentziak, LOMLOE.

**6. Taula**

3- Gaitasun berariazkoa

| LEHENENGO ZIKLOA |
|---|
| ***<u>3. gaitasun berariazkoa</u>*** |
| Ahozko testuak eta testu multimodalak koherentziaz, argitasunez eta erregistro egokiz sortzea, ideiak, sentimenduak eta kontzeptuak adierazteko, ezagutza eraikitzeko, lotura pertsonalak ezartzeko, eta askotariko ahozko interakzioetan autonomiaz eta elkarlanerako jarreraz eta jarrera enpatikoaz parte hartzeko. |
| ***Ebaluazio irizpidea*** |
| 3.1. Ahozko testu eta testu multimodal koherenteak sortzea, plangintza lagunduarekin eta hitzik gabeko oinarrizko baliabideak erabiliz. |
| 3.2. Bat-bateko ahozko interakzioetan parte hartzea, entzute aktiboko eta hizkuntza kortesiako oinarrizko estrategiak erabiliz. |

Lehenengo zikloko Euskara eta literaturako (D eredua) funtsezko konpetentziak, LOMLOE.

**7. Taula**

4- Gaitasun berariazkoa

| LEHENENGO ZIKLOA |
|---|
| ***4. gaitasun berariazkoa*** |
| Testu idatziak eta multimodalak ulertzea eta interpretatzea, zentzu orokorra, ideia nagusiak eta informazio esplizitua eta inplizitua atzematea eta, lagunduta, alderdi formalei eta edukiei buruzko oinarrizko hausnarketak egitea, ezagutza eskuratu eta eraikitzeko eta askotariko komunikazio beharrei eta interesei erantzuteko |
| ***Ebaluazio irizpidea*** |
| 4.1. Testu idatzi eta multimodal errazak eta koherenteak sortzea hainbat euskarritan, idazketaren bilakaera prozesuaren etapetatik abiatuta, emandako ereduetara egokituta eta, lagunduta, plangintza, testualizazioa eta berrikuspena egiteko oinarrizko estrategiak mobilizatuta, bakarkakoak edo taldekoak. |

Lehenengo zikloko Euskara eta literaturako (D eredua) funtsezko konpetentziak, LOMLOE.

**8. Taula**

7- Gaitasun berariazkoa

| LEHENENGO ZIKLOA |
|---|
| ***7. gaitasun berariazkoa*** |
| Modu autonomoan irakurtzea beren gustuen eta interesen arabera hautatutako hainbat lan, eta irakurketa esperientziak partekatzea, irakurle nortasuna eraikitzen hasteko, irakurzaletasuna sustatzeko plazeraren iturri gisa eta horren dimentsio sozialaz gozatzeko. |
| ***Ebaluazio irizpidea*** |
| 7.1. Gero eta autonomia handiagoz, hainbat egileren testuak irakurtzea, ikasleen gustu eta interesekin bat datozenak, laguntzarekin hautatuak, irakurketaren bilakaera-prozesuaren etapetatik abiatuta. |

| |
|---|
| 7.2. Irakurketaren esperientzia eta hark eragiten duen gozamena ahoz partekatzea, eskola eremuko irakurleen komunitateetan parte hartuz |

Lehenengo zikloko Euskara eta literaturako (D eredua) funtsezko konpetentziak, LOMLOE.

**9. Taula**

8- Gaitasun berariazkoa

| LEHENENGO ZIKLOA |
|---|
| ***<u>8. gaitasun berariazkoa</u>*** |
| Ikasleen garapen-mailarako egokiak diren literatura lanak edo pasarteak irakaslearen laguntzaz irakurri, interpretatu eta aztertzea, haien arteko erlazioak ezarriz eta literatura generoa eta haren funtsezko konbentzioak identifikatuz, literatura arte-adierazpen gisa hartzen hasteko, bai eta plazer, ezagutza eta literatura asmoko testuak sortzeko inspirazio iturri gisa ere. |
| ***Ebaluazio irizpidea*** |
| 8.1. Haur-literaturako ahozko eta idatzizko testuak entzutea eta irakurtzea, egile askorenak, emakume zein gizon, eta, aldi berean, testu horien arteko eta beste adierazpen artistiko edo kultural batzuekiko oinarrizko erlazioak ezartzea. |
| 8.2. Lagunduta, literatura-asmoko banakako edo taldeko testu errazak sortzea, idazketaren bilakaera-prozesuaren etapetara egokituta, emandako ereduekin bat etorriz, hainbat euskarritan, eta beste arte-hizkuntza batzuekin osatuta. |

Lehenengo zikloko Euskara eta literaturako (D eredua) funtsezko konpetentziak, LOMLOE.

## 2.6. METODOLOGIA

Proposamena modu malgua eta ikasleen interesak kontuan izanik aurrera eramateko prestatu da, non ikaskuntzako edukiak modu aktibo batean landuko diren. Metodologiari dagokionez Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzan (POI) eta Ikasteko *kooperatu / Kooperatzen ikastean* (IK/KI) metodologietan oinarritzen da. Azkenean bi metodologia hauen oinarrian talde lana dago, eta proposamen hau elkarlanean oinarritzen da. Horrela arazoak konpontzeko eta erabakiak modu bateratu batean hartzeko aukera ematen die ikasleei. Ildo beretik, ikasgela ikaskuntza-komunitatetzat hartzen du, non ikasle guztiak garrantzitsuak diren eta bakoitzaren iritziak, lankidetza eta parte-hartzea beharrezkoak dira proposamena aurrera eramateko.

Ildo beretik, printzipio metodologiko ezberdinetan oinarritzen da proposamen didaktiko hau:

- Giro egokia sortzea, hau da, errespetuan, goxotasunean, afektibotasunean eta aniztasunean oinarritua.
- Haur liburu interesgarriak eta benetan baliagarriak eskainiko zaizkie.
- Ikasleak ikaskuntza prozesuaren ardatza izango dira eta talde lana oinarri izango duen ikaskuntza eskeiniko zaie.
- Ikasle guztien partaidetza bermatzea izango da beste bat, horretarako partaidetza-estrategia ezberdinak eta IK/KI metodologian erabiltzen diren rol ezberdinak erabiliko dira.

## 2.7. ANIZTASUNAREN ZAINKETA

Proposamena garatuko den gelan BHLP dituzten bi ikasle daude, horietako batek Dislexia dauka, ondorioz atzerapen kognitibo esanguratsua dauka hizkuntzan, matematiketan eta gaitasun motorretan. Bestalde, bigarren ikasleak ebakuntza baten ondorioz edukietan atzerapenak eragin dizkio, hau da, erritmo motelagoa darama.

Horren ondorioz, estrategia ezberdinak erabiliko dira proposamena aurrera eramateko eta ikasle hauen parte-hartzea, atentzioa eta motibazioari eusteko. Egokitzapenak honela banatu dira: espazioa, metodologia eta materiala.

Espazioari eta klaseko kokapenari dagokionez, irakasleak hiruhileko bakoitzean taldeak aldatzen ditu eta ikasle hauek irakaslearengandik gertu daude eta gelako aurreko lekuetan, era honetan, estimulu distraktoreak murriztuz.

Bestetik, metodologiari dagokionez, Proiektuetan Oinarritutako Irakaskuntza (POI) eta IK/KI erabiltzen direnez jarduera gehienak taldeka izango dira. BHLP dituzten ikasleak bi talde ezberdinetan daude, eta taldeak irakasleak egin zituen hiruhileko hasieran, taldeak orekatua izanik.

Materialaren aldetik, jarduera gehienetan haur liburuak izango dira oinarria, haur liburu hauek haien adinerako aproposak diren liburuak dira. Ildo beretik, jarduera guztiak ahoz azalduko dira eta eman beharreko urratsak arbelean idatziko dira, ere bai fitxak eta ipuinak egiteko jarraibideak emango zaizkie. Ipuinen kontaketetan, ahoskera, intonazioa, tonua eta puntuazio markak kontuan izango dira eta hauek errespetatuko dira. Eta amaitzeko, fitxak haien beharretara egokituak izango dira, beraz jarduera guztiak gelaren mailaren arabera sortuak izan dira.

## 2.8. EBALUAZIOA

Proposamen didaktiko honen jarduerak ebaluatzeko, LOMLOE curriculumeko Euskara eta literatura (D eredua) ikasgaiaren 1. zikloko ebaluazio irizpideak kontuan hartuko ditut:

- 2.1. Ahozko testu eta testu multimodal errazak ulertzea, ideia nagusiak identifikatzea eta edukia eta hitzezkoak ez diren oinarrizko elementuen hausnarketa egitea.

- 3.1. Ahozko testu eta testu multimodal koherenteak sortzea, plangintza lagunduarekin eta hitzik gabeko oinarrizko baliabideak erabiliz.
- 3.2. Bat-bateko ahozko interakzioetan parte hartzea.
- 4.1. Testu idatzi eta multimodalen esanahi orokorra eta informazio garrantzitsua ulertzea, oinarrizko ulermen estrategietatik abiatuta, irakurketaren aurretik, bitartean eta ondoren.
- 7.1. Autonomia garatzea egile ezberdinen testuak irakurtzeko eta irakurketaren bilakaera-prozesuan abiatzea.
- 7.2. Irakurketaren esperientzia eta hark eragiten duen gozamena ahoz partekatzea, eskola eremuko irakurleen komunitateetan parte hartuz.
- 8.1. Haur-literaturako ahozko eta idatzizko testuak entzutea eta irakurtzea,testu horien arteko eta beste adierazpen artistiko edo kultural batzuekiko oinarrizko erlazioak ezartzea.
- 8.2. Lagunduta, literatura-asmoko taldeko testu errazak sortzea, emandako ereduekin bat etorriz, hainbat euskarritan.

Proposamen didaktiko honetako ebaluazioa jarraitua izango da, irakaslea behatzaile moduan egongo da eta ikusten duen guztia idatziz jasoko da, horrela gelaren jarraipena erregistraturik geldituko da eta amaierako hausnarketa betetzeko baliagarria izango da.

Proposamen didaktiko hau aurrera eramateko bi ebaluazio mota erabiliko dira: irakaslearen ebaluazioa eta ikasleen koebaluazioa. Lehenengo ebaluaketa motarako, hau da, irakasleak egingo duen ebaluaketarako behaketa sistematikoa erabiliko du. Proposamena garatzen den bitartean ikasleak behatuko ditu, horrela aurretik planteatutako helburuak lortzen dituzten ikusteko aukera izango du. Horretarako, behaketa taula bat prestatu da proposamenarekin lortu nahi diren helburuekin. Behaketa taulan osatzeko hizki ezberdinak erabiliko dira: agertzen diren helburuetara heltzen badira lortuak (L) agertuko da, prozesuan badaude (P), lortu gabe (LG) eta kalifikatu gabe (KG) agertuko dira.

**10. Taula**

Behaketa tala

| ITEMAK/ HELBURUAK | 1.S | 2.S | 3.S | 4.S | 5.S | 6.S | 7.S | 8.S | 9.S | 10.S |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emozio ezberdinak identifikatzeko gai izatea, bai bereak bai besteenak | | | | | | | | | | |
| Bere emozioez kontziente da | | | | | | | | | | |
| Emozioak adierazteko gai da, ahoz zein idatziz | | | | | | | | | | |
| Emozioei izenak jartzeko gai da | | | | | | | | | | |
| Talde lanean aritzeko eta rol ezberdinak izateko gai da | | | | | | | | | | |
| Emozioak taldekatzeko gai izatea | | | | | | | | | | |
| Ahozko eta idatzizko testu laburrak ulertzeko gai izatea | | | | | | | | | | |
| Testu laburrak sortzeko gai dira | | | | | | | | | | |
| Ahozko zein idatzizko testuetako ideia nagusiak ulertzeko gai izatea | | | | | | | | | | |
| Liburuekin gozatzea | | | | | | | | | | |

| | | |
|---|---|---|
| Lortua | L | Planteaturiko helburuak lortu dira |
| Prozesuan | P | Denbora gehiago behar dute |
| Lortu Gabe | LG | Ez dituzte lortu |
| Kalifikatu Gabe | KG | Ekarpen berezirik gabe |

Bigarrena aldiz, koebaluazioa izango da. Azkenean planteatu diren jarduera eta ariketa gehienak taldeka burutzeko pentsaturik daude, ondorioz egokiena ikasleek haien koebaluazioa egitea izango da. Horretarako errubrika bat prestatu da eta amaieran emango zaie.

**11. Taula**

Koebaluazioa

| | | | |
|---|---|---|---|
| Taldekideen izenak: | | | |
| Taldearen izena: | | | |
| Adierazleak | 😥 | 😀 | 🤩 |
| Emozioak definitzeko eta identifikatzeko gai gara | | | |
| Emozio ezberdinak izendatzeko gai gara | | | |
| Ipuina sortzeko gai izan gara | | | |
| Talde lanean giro ona izan dugu | | | |
| Modu kooperatiboan lan egiteko gai gara | | | |
| Ikaskide batek laguntza behar izan duenean laguntza eskeini diogu | | | |
| Euskarazko testuak eta testu multimodalak ulertzeko eta ideia garrantzitsuenak ateratzeko gai izan gara | | | |
| Euskaraz idazteko gai izan gara eta arauak errespetatu ditugu | | | |
| Euskaraz mintzatu gara | | | |

## 2.9. JARDUERAK

Proposamen didaktiko honen jardueren sekuentziazioari dagokionez, guztira hamar saio iraungo ditu, hau da, bi aste gutxi gorabehera. Proiektua hirugarren hiruhilekoan egingo da eta sekuentziazioari dagokionez, malgua izango da ikasle guztien interesak, erritmoa eta beharrak kontuan izanik. Horrela dela, osotara hamar saio beharko dira proiektua aurrera eramateko eta saio bakoitzak berrogeita bost minutukoa izanda.

Proposamenari hasiera emateko ikasleen aurre ideietatik abiatzen da eta amaieran ikasle guztien eta eskola osoaren parte-hartzea beharrezkoa den proiektuarekin amaitzen da. Horrela proiektua gelatik hasi eta ikastetxe osoaren inplikazioarekin amaituz, benetako proiektu bat bezala.

Jarduerei dagokionez, oro har kutsu ludikokoak dira, baino ere haur eta gazte literaturarekin eta emozioekin zerikusia duten ariketak egingo dituzte, hala nola: liburuxkak sortzea, emozio ezberdinak lantzea, filmaren analisia egitea, ipuinak entzun eta interpretatzea, ipuinak sortzea, etab.

| SAIOAK | SAIOEN AZALPEN OROKORRA | SAIOEN AZALPEN ESPEZIFIKOA | MATERIALA ETA BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|
| 1 SAIOA | Armiarmaren jolasarekin hasiera emango zaio ondorengo fitxa betetzeko. | Lehenengo saioan proposamenari sarrera emango zaio, horretarako armiarmaren jolasera jolastuko dira. Armiarmaren jolasa emozioei sarrera emateko eta hauekin lehen kontaktua izateko izango da, baita ikasleen aurreideiak ikusteko. Saioaren garapena malgua izango da ikasleen interesak kontuan izanik.<br>Hasteko gelako mahaiak erpinetara mugituko dira guztien artean eta gero ikasleak borobil baten moduan jarriko dira. Irakaslea hasiko da eta edozein ikasleri haria botako dio eta galdetuko dio: *Nola sentitzen zara?, Zer emozio sentitzen duzu?* edo momentuan bururatzen zaizkion galderak botako dizkio. Horrela, armiarma sarea guztien artean osatu arte. | Artilezko haria.<br>Arbela eta klarionak.<br>Lorearen fitxa.<br>Arkatza. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | Behin jolasa amaitzean, arbelean idatziko ditu ateratako emozioak. Ondoren, guztien artean emozio hitzari definizioa ematen saiatuko dira. Gero fitxa bat emango zaie, fitxan lore baten marrazkia aterako da eta bertan guztien artean emandako definizioa idatzi beharko dute. Horretarako, IK/KI metodologiaz baliatuz, hau da, ikasleak laukoteka esertzen direnez talde bakoitzari armiarmaren jolasean ateratako emozio bat egokituko zaio. Gero, taldeka definizioa kopiatuko dute. Eta amaitzeko, lore bakoitzaren erdigunean talde bakoitzari egokitutako emozioa idatziko dute eta petalo bakoitzean emozio hori noiz sentitzen duten jarri beharko dute. | |
| 2-3 SAIOA | *Del revés (Inside Out)* filma ikusiko dute. | Proposamen honetako bigarren eta hirugarren saioan *Del revés (Inside Out*) filma ikusiko dute. Filma emozioen ingurukoa da. | *Del revés (Inside Out)* filma. |
| 4 SAIOA | *Del revés (Inside Out)* filmaren liburuxka. | Saio hasieran filmaren inguruko galderak erantzun beharko dituzte, jarduera hau ozen eta guztien artean egingo dute. Galderen artean egongo dira: *Sentitu dituzue noizbait filmean agertzen diren emozio ezberdinak? Noiz sentitu duzue tristura?, Zerk eragin dizue tristura? / Zergatik sentitu zarete triste?, Noiz sentitu duzue poza?, Zerk eragin dizue poza?/ Zergatik sentitu zarete pozik?, Noiz sentitu duzue haserrea?, Zerk eragin dizue haserrea?/ Zergatik sentitu zarete haserre?, Noiz sentitu duzue beldurra? Zerk eragin dizue beldurra?/ Zergatik sentitu zarete beldurturik?, Noiz sentitu duzue nazka?, Zer eragin dizue nazka?/ Zergatik sentitu duzue nazka?* | Fitxak liburuxka egiteko. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | Ondoren, filmean agertzen diren bost emozioez baliatuz, ikasleek taldeka horien inguruko liburuxka bat sortuko dute. Ikastetxean nagusi den IK/KI metodologiaz baliatuz eta taldeka pertsonaia bat landuko dute, hau da, lauko lau talde eta hirukote bat izango dira.<br>Jarduera honetarako talde bakoitzari egokitutako pertsonaiaren inguruko fitxa emango zaio eta haiek adostu beharko dute zer jarri nahi duten eta nola, hau da, haiek adostuko dute egiten duten lana. Behin talde guztiek amaitzean liburuxka amaituko dute eta liburua gelako liburutegian utziko dute.<br>Landuko dituzten pertsonaiak (emozioak) hauek izango dira:<br>• Alaitasuna<br>• Tristura<br>• Beldurra<br>• Nazka<br>• Haserrea | |
| 5 SAIOA | Haserrea eta poza landuko diuzte. | Hurrengo bi saioetan *Emoziotegia* liburua erabiliko da saioak aurrera eramateko, baina saio bakoitzean bi emozio landuko dira. Beraz, lehenengo saio honetan *haserrea* eta *poza* izango dira landuko ditugun emozioak.<br>Horretarako ikasleak borobil batean eseriko dira, nahi izanez gero lurrean maindireak, kuxinak edota berokiak jarri ahalko dituzte, horrela giro epelagoa sortarazteko. Irakasleak liburuaren pasartearen irakurketarekin hasi aurretik, irudiak eta marrazkiak ikertzeko eskatuko die: agertzen den kolorea, marrazkiak, formak, etab. Gero *haserre* | *Emoziotegia* liburua.<br>Fitxa. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | emozioari dagokion "istoriotxoa" ozen irakurriko die, amaitzean ulertu ez dituzten hitzak azalduko dizkie.<br>Gero ahoz erantzuteko eta guztien artean, galdetuko die: *Norbait sentitu da horrela?, Noizbait sentitu zarete horrela?, Noiz?,* etab.<br>Ondoren, *pozaren* emozioa landuko dugu, aurrekoan bezala *Emoziotegiaren* liburua irakurriko dugu eta gero ozen hausnarketa txikia egingo dute: *Norbait sentitu da horrela?, Noiz sentitzen duzue emozio hori?, Zerk eragiten dizue?, Emozioa positiboa (ona) edo negatiboa (txarra) dela uste duzue?*<br>Jarraian egingo duten ariketarako, ikasleei bi fitxa emango zaizkie eta binakako idazketaren bitartez beteko dute. Kasu honetan, haserrearen eta pozaren fitxak izango dira.<br>Behin ariketa amaitu eta gero, guztien artean jarri dutenaren hausnarketa egingo dugu. | |
| 6 SAIOA | Tristura eta beldurra landuko diuzte. | Saio honetan aurrekoan bezala beste bi emozio landuko dira eta horretarako *Emoziotegia* liburuaz baliatuko da, landuko diren bi emozioak *tristura* eta *beldurra* izango dira. Guztiak berriz lurrean borobil batean eseriko dira eta irakasleak ozen irakurriko die *tristuraren* emozioaren pasartea.<br>Jarraian, guztien artean ozen hausnarketa txikia egingo dute: *Norbait sentitu da horrela?, Noiz sentitzen duzue emozio hori?, Zerk eragiten dizue?, Emozioa positiboa (ona) edo negatiboa (txarra) dela uste duzue?, Zer egiten duzue horrela sentitzen zaretenean?* | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | Jarraian *beldurraren* pasartea irakurriko die ozen eta aurrekoan bezala, hausnarketa txikia egingo dute.<br>Ondoren, bi emozio hauen fitxak bete beharko dituzte, horretarako binakako idazketa metodologiaz baliatuko dira. Eta amaitzean, idatzi dutenaren inguruan mintzatuko dira. | |
| 7 SAIOA | Ipuinen asmatzaileak. | Saio honetan ikasleak taldeka ipuin batzuk sortuko dituzte, horretarako Gianni Rodariren teknika erabiliko dute: Binomio fantastikoa (bi hitz elkarrekin erlaziorik ez dutenekin istorio bat idaztean datza). Talde bakoitzari bi hitz emango zaizkio, bi hitzak istorioaren protagonistak izan beharko dira, eta haiek taldeka adostu beharko dute nolako ipuina sortzen duten. Horrela sormena eta irudimena landuz ipuinak sortuko dituzte, eta aldi berean, emozioak lantzen egongo dira.<br>Hitzak honako hauek izango dira:<br>• Tristura eta txakurra.<br>• Poza eta eguzkia.<br>• Haserrea eta planetak.<br>• Beldurra eta Atarrabia.<br>• Lotsa eta morea.<br>Ikasleek esertzen diren lagunekin egingo dute lan eta ipuinak sortzeko narrazioen egituraren fitxa banatuko zaie. Taldeka adostu beharko dute istorioan gertatuko dena. Ipuina idazteko orri birakariaren teknika erabiliko dute, horrela ikasle guztiek idazteko eta taldeko partaide izateko aukera izango dute. Horretarako, hogeita hamar minutuko tartea erabiliko da. | Hitzen txartelak.<br>Narrazioen egituraren fitxa. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | Behin amaitzean, taldeko bozeramaileak gainontzeko ikasleei ipuina ozen irakurriko die. Eta horrela ipuin guztiak irakurri arte. | |
| 8 SAIOA | *Koloretako munstroaren* ipuina irakurriko dute. | Saio honetan talde irakurketa bat egingo dute, zehazki "*Koloretako munstroen*" ipuina. Ikasleak lurrean borobil batean eseriko dira eta irakasleak ozen irakurriko die ipuina.<br>Ipuina irakurri aurretik, azala aztertuko dute (zein kolore agertzen diren, zer agertzen den, etab.). Bost edalontzi aterako ditu eta ipuina ozen irakurtzen hasiko da irakaslea. Behin ipuina amaitu dugunean, ikasleei koloretako munstro bakoitza margotzeko eskatuko die eta gero edalontzietan sartuko dituzte. Ipuinean bezala munstro bakoitza dagokion kolorearekin margotu beharko dute, hau da:<br>• Alaitasuna: horia<br>• Tristura: urdina<br>• Amorrua: gorria<br>• Beldurra: beltza<br>• Baretasuna: berdea | *Koloretako munstroaren* ipuina.<br>Ontziak.<br>Orri zuriak.<br>Margoak. |
| 9 SAIOA | Aurretik landutako emozioekin ipuin bat sortuko dute taldeka. | Saio honetan aurretik landutako guztia liburu batean laburbiltzea izango da, horretarako ikasleak liburu hori sortu beharko dute.<br>Jarduera aurrera eramateko talde bakoitzari emozio bat egokituko zaio eta horren fitxa bat. Fitxa betetzeko ikerketa egin beharko dute, aurretik landutakoaz baliatuz: emozioaren definizioa, ezaugarriak, noiz sentitzen duten, gorputzarekin nola adierazpen dugun marrazkiak edo argazkiak txertatu beharko dituzten, etab. Saioa aurrera eramateko, talde bakoitzari jarraitu beharreko txantiloia | Egokitutako emozioaren fitxa.<br>Arkatzak.<br>Errotulagailuak eta margoak.<br>Mugikorra argazkiak egiteko. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | banatuko zaio eta behin talde guztiak amaitzean liburua sortuko dute.<br>Landuko dituzten emozioak honako hauek dira:<br>• Alaitasuna<br>• Beldurra<br>• Haserrea<br>• Tristura<br>• Nazka<br>Liburua gelako liburutegian utziko dute. | |
| 10 SAIOA | Emozioen inkesta egingo dute eta gero emozioak lantzen dituzten ipuinak bilatuko dituzte. | Azken saio honen hasieran, emozioen inguruko inkesta bat bete beharko dute, bakoitzak inkesta bere ordenagailuan egingo du. Ondoren, ikastetxeko liburutegira joango dira emozioak lantzen dituzten haur eta gazte literaturako lanak bilatzeko. Ikasleak taldeka antolatuko ditugu horrela lana banatzeko eta errazago bilatzeko. Gero, aurkitutako liburuentzako apalategi berezi bat prestatuko dute eta hor jarriko dituzte guztiak. Liburuak mailaren arabera, hau da, gomendatutako adinaren arabera antolatuko ditugu ikastetxe osoko ikasleek har dezaten. | Ordenagailua.<br>Inkesta.<br>Liburutegia.<br>Haur eta gazte literaturako lanak. |

# ONDORIOAK ETA GAI IREKIAK

## Ondorioak

Honekin guztiarekin amaitzeko, haur eta gazte literatura oso tresna eraginkorra izan daiteke Lehen Hezkuntzako ikasleekin emozioak lantzeko orduan. Ipuinen eta liburuen bitartez, gai emozionalak landu daitezke, eta horrela, irakurle gazteek beren sentimenduak eta besteenak identifikatzeko eta ulertzeko aukera izaten dute. Beraz, haur eta gazte literaturaren bitartez, haurrek beren eta besteen emozioen identifikaziorako eta kudeaketarako tresna baliagarria zaie. Gainera, literaturaren bitartez irakurleek estrategia ezberdinak bereganatu ditzakete haien emozioak kudeatzeko, baita besteekiko enpatia garatzeko. Era berean eta aurrekoarekin erlazionaturik, enpatiaren garapenerako lagungarria zaie. Azkenean, haur eta gazte literaturan agertzen diren pertsonaien sentimenduak, emozioak eta bizipenak agertzen dira, horren bidez, irakurle gazteak haiekin identifikatzen dira eta gai izan daitezke enpatia garatzeko eta errealitatera eramateko, hau da, beste pertsonen sentimenduak eta emozioak ulertzeko.

Emozioen alorra lantzen duen haur eta gazte literatura bereziki erabilgarria izan daiteke emozioak eta sentimenduak adierazteko, eta alderantziz, hau da besteen sentimenduak ulertzeko. Bereziki erabilgarria izan daiteke gaitasun emozionaletan eta sozialetan zailtasunak dituzten umeentzat. Era berean, liburuen lanketaren bitartez, haurrek emozio sorta zabalak bizitzeko aukera daukate, eta horrek lagundu diezaieke ere bai emozio- eta gizarte-gaitasun garrantzitsuak garatzeko.

Era berean, kontzientzia emozionala garatzeko baliabide ezin hobea da, hau da, emozioak identifikatzeko, ulertzeko eta kudeatzeko, ipuinetako kontakizunen bidez ematen da, bertan errealitatean sortzen diren egoerak eta emozioak agertzen direlako. Eta kasu horretan, gaitasun hori lortzeko liburuak baliagarriak izan daitezke, irakurleak emozioak bizi eta uler ditzakeelako, eta gero, pixkanaka, kontzientzia emozionala garatu.

Haur eta gazte literaturaren bitartez emozioak lantzearen ondorioetako bat irakasleei ikuspegi berriak eskaintzea da; hau da, liburuen erabilera alderdi emozionalak lantzeko eta ez soilik didaktika.

Marko praktikoko proposamena, Atargi ikastetxean publikoan gauzatzeko sortu da, zehazki Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko bigarren mailako ikasleekin egiteko. Saio batzuk aurrera eraman dira, ziurtatzeko proposamena benetan erabilgarria den edo ez. Beraz, atal praktikoa egin ondoren, ateratako ondorioak zeintzuk diren aipatuko dira jarraian. Lehendabizi, haur eta gazte literaturaren garrantzia ezinbestekoa dela haurren garapen integralerako, baita ere, ikasleek lortu beharreko gaitasunak garatzeko. Era berean, irakurketa gozamenarekin lotzea beharrezko da.

Bestalde, emozioekin lotuta, aukeratu diren liburuak ezagunak dira eta aurretiko lanketa egokia badago, liburuekin lortu nahi diren helburuak beteko dira. Erabili den ipuina *Koloretako munstroarena* izan da eta ikasleek liburua ezagutzen zuten, ondorioz guztiek emozio bakoitza kolore batekin

erlazionatu dute, hau da, horia alaitasunarekin, urdina tristurarekin, berdea lasaitasunarekin (liburuan baretasuna bezala agertzen da), beltza beldurrarekin, haserrea gorriarekin eta maitasuna arrosarekin. Era berean, guztiek emozio bakoitzaren aurpegi adierazpena egiterakoan, guztiek berdin adierazi dute, horrek esan nahi du emozio horiek unibertsalak direla eta ikasleek ongi identifikatzen eta barneraturik dituztela.

Laburbilduz, haur eta gazte literatura tresna oso baliotsua izan daiteke haurrek beren emozioak modu osasungarrian identifikatzeko, ulertzeko eta erabiltzen ikasteko, baita ere, eguneroko bizitzako gaitasun sozial eta emozional garrantzitsuak garatzeko. Beraz, Lehen Hezkuntzako geletan garrantzitsua da gai emozionalak lantzen dituzten liburu eta ipuinen irakurketa sustatzea, horrela emozioak eta irakurketa landuz.

## Conclusiones

Para finalizar con el trabajo, la literatura infantil y juvenil puede ser una herramienta muy eficaz a la hora de trabajar las emociones con el alumnado de primaria. A través de los cuentos se pueden trabajar los temas emocionales, de forma que los jóvenes lectores puedan identificar y comprender sus propias emociones y las de los demás. Por lo tanto, a través de la literatura infantil y juvenil, los niños y niñas obtienen los recursos necesarios para identificar y gestionar sus propias emociones, y al mismo tiempo, las de los demás. Igualmente, la literatura permite a los lectores adoptar diferentes estrategias para gestionar sus emociones y desarrollar la empatía. Asimismo, y en relación con lo anterior, les ayuda al desarrollo de la empatía, mediante la identificación de los sentimientos, emociones y vivencias que presentan los personajes.

Este tipo de literatura, puede ser especialmente útil para expresar emociones y sentimientos, también para comprender los de los demás. Puede ser especialmente útil para aquellos que presentan dificultades es sus capacidades emocionales y sociales.

Asimismo, los libros permiten a los niños experimentar un amplio abanico de emociones, las cuales les pueden ayudar a desarrollar importantes capacidades emocionales y sociales.

Es, asimismo, un perfecto recurso para el desarrollo de la conciencia emocional, es decir, para la identificación, comprensión y gestión de las emociones. Se realiza a través de los relatos de cuentos, en los que aparecen situaciones y emociones reales.

Una de las consecuencias de trabajar las emociones a través de la literatura infantil y juvenil es que ofrece nuevos enfoques para el profesorado, es decir, permite utilizar los libros para trabajar aspectos emocionales y no sólo didácticos.

El apartado práctico de este trabajo ha sido diseñado para llevarlo a cabo en la escuela pública Atargi, concretamente con el alumnado de segundo curso de Educación Primaria. Se han llevado a cabo

varias sesiones con el fin de comprobar la utilidad real del trabajo. Las conclusiones que se han sacado son las siguientes, por un lado la importancia de la literatura infantil y juvenil para el desarrollo integral del alumnado. Por otra parte, en relación con las emociones, los libros seleccionados son conocidos y si la elaboración previa es adecuada, se cumplirán los objetivos. El cuento utilizado ha sido el del *Monstruo de colores* (Llenas, 2015) y los alumnos lo conocían, por lo que todos han relacionado cada emoción con el color correspondiente, es decir, el amarillo con la alegría, el azul con la tristeza, el verde con la tranquilidad, el negro con el miedo, el rojo con la ira y el amor con el rosa. De la misma manera, todos han expresado de la misma manera cada emoción, lo que significa que esas emociones son universales.

En resumen, la literatura infantil y juvenil puede ser un instrumento muy valioso para que los niños aprendan a identificar, comprender y utilizar de forma saludable sus emociones, así como para desarrollar las importantes capacidades sociales y emociones de la vida cotidiana. Por tanto, en las aulas de Primaria es importante fomentar la lectura de cuentos que traten los temas emocionales, trabajando así las emociones y la lectura.

# ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Atargi herri eskola (d.g.). *Atargi herri eskola.* *https://sites.google.com/educacion.navarra.es/atargi/home*

Barrie, J.M. (1911). *Peter and Wendy (Peter Pan).* Charles Scribner´s Sons.

Beloki, I. (2023). *Emozioak ezagutzen dituzu?.* [Cuestionario en línea]. https://docs.google.com/forms/d/1Z40KTmFLxY6joC7XGSbRaoYuB_XBYSALRUhg0JAuS6M/edit

Bisquerra, R. (2003). Educación emocional y competencias básicas para la vida. *Revista de Investigación Educativa.*

Bisquerra, R. (2009*). Psicopedagogía de las emociones*. Editorial Síntesis, S.A.

Bisquerra, R. (2011). *Educación Emocional. Propuestas para educadores y familias*. Editorial Síntesis, S.A.

Bortolussi, M. (1985). *Análisis teórico del cuento infantil*. Alhambra.

Canva. (2023). *Ficha de ejercicios y metas diarias doodle moderno amarillo morado blanco negro.* [Webgunea]. [Txantiloia]. https://www.canva.com/projects

Canva. (2023). *Hoja bloc agenda carta apuntes.* [Webgunea]. [Txantiloia]. https://www.canva.com/projects

Canva. (2023). *Imitación libreta cuaderno notas infantil blanco.* [Webgunea]. [Txantiloia]. https://www.canva.com/projects

Casternao, Á. (2022, 4 noviembre). ¿Por qué es importante la educación emocional en el aula? *Blog de Instituto Serca*. https://blog.institutoserca.com/la-educacion-emocional-en-el-aula/

Cervera, J. (1984). *La Literatura Infantil en la educación básica*. Cincel-Kapelusz.

Cervera, J. (1992). *Teoría de la Literatura Infantil*. Mensajero/ Universidad de Deusto.

Colomer, T. (2010*). Introducción a la literatura infantil y juvenil actual*. Editorial Síntesis, S.A.

*Del revés (Inside Out).* (2015). [DVD]. Pixar Animation Studios, Walt Disney Pictures.

Ekman, P. (1992). An Argument for Basic Emotions. *Cognition and emotion,* 169-200.

Etxaniz, X. (1996). *Euskal haur eta gazte literaturaren historia.* Pamiela argitaletxea.

Etxaniz, X. (1997). *Haur eta gazte literatura*. Pamiela argitaletxea.

Gardner, H. (1987). *La nueva ciencia de la mente; Historia de la revolución cognitiva*. Praidós.

Goleman, D. (1996). *Inteligencia emocional* (D. González Raga, Trans.). Kairós, Editorial S.A.

Jimenez, J. (2009). *Ipuinak hasteko eta bukatzeko formulak*. Issuu.

Juaristi, F. ik. Etxaniz, 1997.

Kasares, P. (2021-22). *Haur eta Gazte Literaturaren Didaktika.* Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua. Nafarroko Unibertsitate Publikoa.

Lazarus, R. S. (1991). *Emotion and adaptation*. Oxford University Press.

Llenas, A. (2015). *Koloretako munstroa*. Editorial Flamboyant, S.L.

López-Rosetti, D. (2018). *Emoción y sentimientos: No somos seres racionales somos seres emocionales que razonan*. (1.a ed.). Planeta. emocion-y-sentimientos-daniel-lopez-1.pdf

Material de la Diputación de Guipúzcoa - eskolabakegune. (d.g.). [Webgunea]. https://labur.eus/4l71S

Mayer, J.D., Salovey, P. (1990). *Emotional Intelligence*. Baywood Pub1ishlnl Co., Inc

Morón, M. C. (2010, Mayo). Los beneficios de la literatura infantil. *Temas para la educación*.

Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzaren Etapako Irakaskuntzen Curriculuma (2022 [LOMLOE]). 67/2022 Foru Dekretua, ekainaren 22koa, 2022ko 130. *Nafarrokako Aldizkari Ofiziala, uztailaren 1ekoa.*

Núñez, C., eta Valcárcel, R. R. (2016). *Emoziotegia. Esan zer sentitzen duzun*. Palabras Aladas.

Organización de las Naciones Unidas. (2015). La Asamblea General adopta la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible [Comunicado de prensa ]. https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/2015/09/la-asamblea-general-adopta-la-agenda-2030-para-el-desarrollo-sostenible/#

Perrault, C. (1697). *Le Petit Chaperon rouge (Txanogorritxo).* Chez Claude Barbin.

Porras, J. (2011). *La literatura infantil, un mundo por descubrir*. Visión Libros.

Puerta, M. eta Gutiérrez, M. (2006*).* Presencia de la literatura. *El nacional.*

Ramos, M. (2022). *La literatura infantil como herramienta para aprender a identificar y gestionar las emociones en el Primer Ciclo de Educación Primaria.* [Trabajo de fin de grado]. Universitat de les Illes Balears https://dspace.uib.es/xmlui/bitstream/handle/11201/159671/Ramos_Lunar_Mois%C3%A9s.pdf?sequence=1&isAllowed=y

Real Academia Española. (2021). *Diccionario de la lengua española*. a (23.ª ed.). https://dle.rae.es/

Rodari, G. (2004*).* La imaginación en la literatura infantil. *Perspectiva Escolar aldizkaria.*

Rousseau (ap. Etxaniz, 1997).

Slegers, L. (2003). *Txomin ilea mozten* (Umerez, N., itzulia) Ibaizabal.

TTiKLiK (2022). *Adimen emozionala. Zer da? Zergatik landu behar dugu?* [Webgunea]. https://www.ttiklik.com/blog/2012/02/29/adimen-emozionala-zer-da-zergatik-landu-behar-dugu/

Uliveri, S. (1986). Historiadores y sociólogos en busca de la infancia apuntes para una bibliografia razonada. *Revista de Educación.*

Urtubia, I. eta Lasarte, G. (2014). *Haur hezkuntzarako liburutegi proposamena: Ehun liburu mende baterako.* [Trabajo de fin de grado]. EHU/UPV. https://www.ehu.eus/ikastorratza/13_alea/liburua.pdf

Zubizarreta, P. ik. Etxaniz, 1997.

# ERANSKINAK

Taldearen izena: ______________________________________________

Data: ______________________________________________



# PERTSONAIAREN IZENA: ______________________

**IZENA:**

---

**BERE EMOZIOA:**

---

**NOLAKOA DA:**

---

**ZEIN KOLORETAKOA DA:**

---

DATU INTERESGARRIAK:

---

**DEFINITU BERE EMOZIOA:**

---

**MARRAZTU**

# PERTSONAIAREN IZENA:

**IZENA:**

**BERE EMOZIOA:**

**NOLAKOA DA:**

**ZEIN KOLORETAKOA DA:**

DATU INTERESGARRIAK:

**DEFINITU BERE EMOZIOA:**

**MARRAZTU**

# PERTSONAIAREN IZENA:

______________________________

**IZENA:**

--------------------------------------------------------------------------------
--------------------------------------------------------------------------------
--------------------------------------------------------------------------------

**BERE EMOZIOA:**

--------------------------------------------------------------------------------
--------------------------------------------------------------------------------
--------------------------------------------------------------------------------

**NOLAKOA DA:**

--------------------------------------------------------------------------------
--------------------------------------------------------------------------------
--------------------------------------------------------------------------------
--------------------------------------------------------------------------------
--------------------------------------------------------------------------------
--------------------------------------------------------------------------------
--------------------------------------------------------------------------------
--------------------------------------------------------------------------------

**ZEIN KOLORETAKOA DA:**

--------------------------------------------------------------------------------
--------------------------------------------------------------------------------
--------------------------------------------------------------------------------

DATU INTERESGARRIAK:

--------------------------------------------------------------------------------
--------------------------------------------------------------------------------
--------------------------------------------------------------------------------

**DEFINITU BERE EMOZIOA:**

--------------------------------------------------------------------------------
--------------------------------------------------------------------------------
--------------------------------------------------------------------------------
--------------------------------------------------------------------------------
--------------------------------------------------------------------------------
--------------------------------------------------------------------------------
--------------------------------------------------------------------------------
--------------------------------------------------------------------------------

**MARRAZTU**

# PERTSONAIAREN IZENA: ______________________________

| IZENA: | BERE EMOZIOA: |
| --- | --- |
| ---------------------------- | ---------------------------- |

**NOLAKOA DA:**

----------------------------

**ZEIN KOLORETAKOA DA:**

----------------------------

DATU INTERESGARRIAK:

----------------------------

**DEFINITU BERE EMOZIOA:**

----------------------------

**MARRAZTU**

# PERTSONAIAREN IZENA:

______________________________

**IZENA:**

------------------------------------------------------------------------
------------------------------------------------------------------------
------------------------------------------------------------------------

**BERE EMOZIOA:**

------------------------------------------------------------------------
------------------------------------------------------------------------
------------------------------------------------------------------------

**NOLAKOA DA:**

------------------------------------------------------------------------
------------------------------------------------------------------------
------------------------------------------------------------------------
------------------------------------------------------------------------
------------------------------------------------------------------------
------------------------------------------------------------------------
------------------------------------------------------------------------
------------------------------------------------------------------------

**ZEIN KOLORETAKOA DA:**

------------------------------------------------------------------------
------------------------------------------------------------------------
------------------------------------------------------------------------

DATU INTERESGARRIAK:

------------------------------------------------------------------------
------------------------------------------------------------------------
------------------------------------------------------------------------

**DEFINITU BERE EMOZIOA:**

------------------------------------------------------------------------
------------------------------------------------------------------------
------------------------------------------------------------------------
------------------------------------------------------------------------
------------------------------------------------------------------------
------------------------------------------------------------------------
------------------------------------------------------------------------
------------------------------------------------------------------------

**MARRAZTU**

# beldurra

zer ematen dizue beldurra?

nola adierazten dugu beldurra, aurpegian?

emozio ona edo txarra da?

zer egiten duzue beldur zaudetenean?

nola lagunduko zeniokete beldurra duen lagun bati?

zein kolorerekin erlazionatuko zenukete?

marraztu emozio hori

# poza

noiz sentitu duzue poza?

zerk eragiten dizue poza?

nola adierazten dugu poza, aurpegian?

emozio ona edo txarra da?

zein kolorerekin erlazionatuko zenukete?

marraztu emozio hori

# tristura

zerk eragiten dizue triste egoteak?

nola adierazten dugu tristura, aurpegian?

emozio ona edo txarra da?

zer egiten duzue triste zaudetenean?

nola lagunduko zeniokete triste dagoen lagun bati?

zein kolorerekin erlazionatuko zenukete?

marraztu emozio hori

# haserrea

noiz sentitu duzue haserrea?

zerk eragiten dizue haserrea?

nola adierazten dugu haserrea, aurpegian?

emozio ona edo txarra da?

## IPUINAK HASTEKO FORMULAK

- Bazen behin...
- Duela urte asko...
- Orain dela aspaldi...
- Etxe batean/ herri batean/ baserri batean...

## IPUINEN ATALAK

1. HASIERA
   a. Noiz gertatzen da? / Non gertatzen da? / Nor edo nortzuk agertzen dira? / Nolakoak dira?
2. KORAPILOA
   a. Zer arazo dute? / Zer gertatzen da?
   b. OROITU! → gero, ondoren, geroago, arratsaldean…
3. BUKAERA
   a. Nola bukatzen da?
   b. OROITU! → Bukatzeko, amaitzeko…(Ipuinak bukatzeko formulak erabili behar dira)

## IPUINAK BUKATZEKO FORMULAK

- Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan.
- Hala bazan edo ez bazan sar dadila Atarrabiako plazan.
- Egia bada sinets, gezurra bada ez sinets.
- Haiek ongi bizi, guk hobeki.

Data:

Taldekideak:

Data:

Taldekideak:

# EMOZIOAK EZAGUTZEN DITUZU?

Bederatzi galdera hauei erantzun behar diezue, eskerrik asko.

1. Nola sentitzen zara Monopoliko partida bat irabaztean?

*Marca solo un óvalo.*

- Haserre
- Triste
- Lotsatuta
- Pozik

2. Zer sentitzen duzu zure lagun batek zerbait itsusia esaten dizunean?

*Marca solo un óvalo.*

- Lotsatuta
- Triste
- Pozik
- Maitasuna

3. Nola sentitzen zara joku batean irabazten duzunean?

*Marca solo un óvalo.*

- Haserre
- Pozik
- Harrituta
- Triste

4. Nola sentitzen zara zure lagunekin zaudenean?

*Marca solo un óvalo.*

- Triste
- Haserre
- Beldurturik
- Alai

5. Nola sentitzen zara azterketa bat duzunean?

*Marca solo un óvalo.*

- Haserre
- Triste
- Pozik
- Urduri

6. Zer egiten duzu haserre zaudenean?

*Marca solo un óvalo.*

- Oihukatu norbaiti
- Arnas sakona hartu eta 10 arte zenbatu, edo musika lasaia jarri
- Nire anaiari jo
- Lasaitasun txokora joan

7. Zer egiten duzu triste zaudenean?

*Marca solo un óvalo.*

- Telebista ikusten egon
- Negar egin
- Lagun batekin hitz egin eta besarkada bat eman
- Egun osoan lo egiten egon

8. Zer egiten duzu beldurra duzunean?

*Marca solo un óvalo.*

- Izkutatu ohe azpian
- Familiarekin egon lasaitzeko
- Gauza arriskutsuak egin
- Negar egin

9. Zer egiten duzu pozik zaudenean?

*Marca solo un óvalo.*

- Korrika egiten hasi
- Negar egin
- Lagunekin edo familiarekin egon jolasten
- Norbaiti jo

Este contenido no ha sido creado ni aprobado por Google.

Google Formularios


Escaneado con CamScanner


Maitasuna
Poza
Beldurtuta
Escaneado con CamScanner


Escaneado con CamScanner

